

PAGADIEN USTIAPEN MODUAK AZTERGAI

Artia mendiko 240 pagoren laginak jasoko dituzte, klima aldaketak hauen ustiapen modu ezberdinetan duen eragina aztertzeko. Julen Astigarraga geografo eta ekologo oñatiarrak gidatuko du azterlana.



Klima aldaketak pagadien ustiapen modu ezberdinetan duen eragina aztertuko dute

Julen Astigarraga geografo eta ekologoak gidatuko du azterlana. Artia mendiko 240 pagoren laginak jasoko dituzte dendrokronologia bidez

Baso-ustiapen modu ezberdinek klima aldaketaren aurrean duten erresilientzia maila aztertuko du Euskal Herriko eta Espainiako ikerlari talde batek, Artia mendiko pagadietako laginak hartuta. Julen Astigarraga (Oñati, 1994) geografo eta ekologoak gidatuko du azterlana, eta berak azaldu dizkigu ikerketaren inguruko xehetasunak.

Nondik nora sortzen da ikerketa lan hau?

Bi interes elkartu direla esango nuke; batetik interes zientifikoa (gurea, ikerlariona), eta, bestetik kudeaketa interes bat (Oñatiko udalarena).

Interes zientifikoari erreparatuz, gaur egun arte, ikerketa ezberdinetan ikusi izan da basoen erantzuna aldakorra dela klima aldaketaren aurrean, es-

pezieen arabera eta baita zuhaitzen ezaugarri funtzionalen arabera. Edozeinek ulertzeko moduan esanda, eta adibide bat jartzearen, ezaugarri funtzional bat zuhaitzen egurraren dentsitatea izan daiteke. Adibidez, egur dentsitate handiena duten espezieek konpetentzia gaitasun handiagoa dute normalean, baina hazkuntza motelagoa (adibidez, pagoa) eta,



2011ko Herriorran prozesuaren baitan lan handia egin zen Artia mendiko antolamendu plana garatzeko, eta espero dut gure lan honek ere laguntzea plan hura balioan jartzen

aldiz, dentsitate baxua dutenek konpetentzia gaitasun txikiagoa dute, baina hazkuntza azkaragoa (adibidez, pinuak).

Azken ikerketek esaten dute iraganeko gestio moduek ere badutela eragina klima aldaketari erantzuteko gaitasunean edo gaitasun gabezia. Hau da, pago tantai batek edo pago motz batek ez diotela berdin erantzungo; ezta ere iraganean kudeatzen ziren zuhaitz edo baso horiek eta gaur egun jareta edo abandonatuta daudenek.

Honek danak interes berezia du iberiar penintsula edo mediterraneoko testuinguruan, izan ere gure basoak historikoki oso

kudeatuak izan dira mendeetan zehar eta gaur egun ematen ari den hiritartze prozesuarekin kudeaketa falta inportante bat ikusten da.

Kudeaketa interesari dago-kionez, 2011. urteko *Herrijorran* prozesuetatik abiatuta Oñatiko Herri Onurako Mendien Antolamendu Plana egin zen. Plan honek Oñatiko herriaren jabetzakoak diren Aloña, Artia, Araotz-Txirikillaleku eta Iturigorri barneratzen zituen fase ezberdinetan, eta bertan finkatzen ziren helburuak eta horiek betetzeko egin beharreko ekintzak 10 urteko planifikazio batekin (2014-2024). Gaur egun Artiako antolamendua eginda dago, baina, zoritxarrez, aldundiak baimenik eman ez duenez, proiektua gelditi dago.

Zer aztertu nahi duzue ikerketa honen bidez?

Pagoan zentratuko gara eta hiru galderari erantzuten saiatuko gara:

1- Pagoaren baso erabilera ezberdinek zein neurritan moldatzen duten klima aldaketaren eragina (hazkuntzaren neurketaren bidez). Hemen klima aldaketa esaten dugunean, zentratuko gara tenperatura igoeran noski, baina baita muturreko fenomenoetan ere, hala nola, udako lehorteak edo gero eta beranduago datozen izozteak.

2- Zein arrazoi ekologikori erantzuten dion. Zergatik izan daitezkeen erabilera batzuk beste batzuk baino erresilienteagoak edo erresistenteagoak. Hau da, muturreko fenomeno baten aurrean zergatik errekupe-ratzen dira erabilera zehatz bat duten basoak azkarrago, beste batzuk baiño, edo zergatik duten erresistentzia maila handiagoa klima aldaketaren aurrean.

3- Oñatiko pagadiak dagokionez, zein erabilera izango litza-teke aproposena etorkizuneko klima aldaketara moldatzeko. 2100. urtera arteko proiektzio ezberdinak egingo ditugu isuri-en IPCCren bi eszenario planteatuz. Batean isuriak gutxitzeko



Geografia eta lurralde antolamenduan graduatua eta ekologian masterduna da Julen



Gaur egun arte ikerketa ezberdinetan ikusi izan da basoen erantzuna aldakorra dela klima aldaketaren aurrean, espezieen eta ezaugarri funtzionalen arabera

Azken ikerketek esaten dute iraganeko gestio moduek ere eragiten dutela klima aldaketari erantzuteko gaitasun mailan. Ez dute berdinean erantzuten pago tantai batek eta pago motz batek



Modu ezberdinean kudeatutako pagadiak aztertuko dituzte, klimaren aldaketaren aurrean duten erantzuna aztertzeko

neurriak hartu direla aurreikusiz eta bestean, aldiz, ez. Horren ondorioz bataz besteko tenperaturak ezberdin igoko dira mende honen bukaerarako (1,5°C eta 4°C artean 2080-2100) industria iraultza aurreko tenperaturekin alderatuz (1850-1900).

Nola jakin daiteke pagoen laginak hartuta, zer nolakoa den klima aldaketaren eragina? Zergatik pagoak, eta zergatik Artia mendian?

Dakizun moduan, zuhaitzen hazkuntza garai bakoitzeko gehiago edo gutxiago definitutako eraztun bat ikus daiteke. Eraztun horiek zabalagoak izaten dira garai hezeetan, eta estuagoak garai lehorretan. Hortaz, lotura nahiko zuzena egin daiteke klima aldaketarekin garai lehor eta hezeagoak identifikatzeko.

Pagoa aukeratu dugu hiru arrazoi nagusigatik: 1- oraindik nahiko arrunta delako Oñatiko mendietan, baita Euskal Herri eta Europa mailan ere (gure emailtzak beste eremu batzuetakoekin konparatu ditzakegu); 2- pagoari lotutako erabilera ezberdinak ditugulako Oñatin bertan; 3- Artia mendian ugaria den espezie bat delako.

Artia mendia aukeratzea zehazki *Herrijorran* prozesuaren ondorio da. Bertan finkaturiko helburu bat fauna eta landare-diaren ikerketa sustatzea zen eta horregatik aukeratu dugu.

Azpiarratu egin nahi nuke antolamendu planen garrantzia, herri mailan dugun tresna garrantzitsuenak direlako basoak kudeatzeko. Helburuak eta ekintza planak herritar guztion artean zehaztea ahalbidetzen digun tresna da, eta basoen jasangarritasuna ziurtatzen duena epe ertain-luzera begira. Beraz, uste dut balioan jarri behar direla. Artiako kasuan lan handia egin zen antolamendu plan hori garatzen, eta guk aurkezturiko lan honek hein batean ingurunea eta plana bera ere balioan eta martxan jartzea ahalbidetu dezake.

(Hurrengo orrira)

Gure ingurugiroan eta, ondorioz, gure osasunean klima aldaketaren eraginak larriegiak izan aurretik, hobe ikerketak aurretiaz egin eta etorriko denerako ahalik eta ondoen prestatzea; klima aldaketaren aurrean ez baita egongo salbatuko gaituen bakunarik.

Artia mendiko 240 pagoren laginak atera behar dituzue. Nola ateratzen dituzue eta nola aztertzen?

Lau ustiapen modu ezberdin identifikatu ditugu: 1- Mozketa jarraiak egiten diren edo duela gutxi mozketak jasan dituzten pago motzak; 2- Azken urteetan kudeatu ez direnak eta erortzen ari direnak; 3- Iraganean guztiz moztu (batzuetan perturbazio ezberdinen ondorioz) eta birsortu direnak; 4- Azken hamarkadetan kudeaketa zantzurik ez duten zuhaitzak. Eta asmoa da ustiapen modu bakoitzeko 20 zuhaitzen laginak ateratzea hiru eremu ezberdinetan.


Lagin hauek egurrezko xafila luze batzuk dira, eta bertan zuhaitzen urte ezberdinetako eraztunak ikusi daitezke. *Pressler barrena* izeneko tresna baten bidez ateratzen dira eta, ondoren, lehortu, lixatu eta eskaneatu egin behar dira eraztunak ondo ezberdintzeko neurtu aurretik. Neurketak irudien prozesamendu digitalaren bidez egiten dira. Azkenik eraztunen zabalera neurriak zuhaitzaren azalerara transformatzen ditugu.

Zuk gidatuko duzu ikerketa, baina talde lana izango da.

Bai, parte hartuko dugun gehienok FORECO (*Forest Ecology and Restoration Group*, Alcalako



Goiko irudian ikusten den moduan, *Pressler barrena* izeneko tresna baten bidez aterako dituzte pagoen laginak. Egurrezko xafila luze batzuk dira (ezkerreko irudia) eta hor ikus daitezke zuhaitzaren hazkuntza garai ezberdinei dagozkien eraztunak



Finean, aztertu nahi dugu zein erabilera izango litzatekeen aproposena etorkizuneko klima aldaketara moldatzeko Oñatiko pagadiak

Unibertsitatea, Madril) taldeko kideak gara, baina beste unibertsitate eta ikerketa zentro batzuetako jendea ere egongo da. Gai ezberdinetan aditua den jendea, azken batean: batzuk adituak dira dendrokronologian (zuhaitzen eraztunen datazioaz arduratzen den zientzia), beste batzuk espezien arteko interakzioetan etab. FORECO baso ekologian

eta errehabilitazio ekologikoaren inguruko ikerketak egiten ditugu batik bat.

Zure ekimenez sortutako proiektua da?

Egun doktoretza tesia egiten ari naiz talde horren baitan, eta zehazki, klima aldaketari basoek nola erantzuten dioten aztertzen ari naiz. Orain arte, eskala zabalagoan lan egin izan dut. Adibidez, uztailerako espero dut argitaratuta egotea Espainiako 236.000 zuhaitz inguru eta azken 30-35 urteetako datuak aztertuz egin dugun lan bat. Eskala horietan lan egitean emaitzak espazialki askoz zabalagoak izan ohi dira, baina analisisan detailea galtzen da. Kasu honetan kontrakoa egiten saiatuko gara, detailean irabazten dimentsio espazialaren trukean.

Beraz, bai, neurri batean nire ekimena izan da, baina baita udalarena ere, eta batik bat, Ingurumen batzordeko buru den Axier Iraetarena. Printzipioz, ez da izango tesiko parte, baina ildo honetan (kudeaketa eta klima aldaketa erlazionatuz) lanean gabiltzan taldetxo bat osatu dugu eta ikusiko dugu noraino ematen duen lan honek. Akaso, zerbait politaren hasiera izan daiteke. Egia esan, pozik nago herriari lagunketako nire aletxoak jarri gura nuelako eta aukera hau sortu delako. Eskerrak eman nahi dizkiot udalari, ikerketa hau egitea ahalbidetzeagatik.

Zenbat denbora beharko duzue ikerketa burutzeko?

Gure asmoa da laginketak aurturten egitea, eta, dena ondo bidean, emaitzak datorren urtean edukitzea espero dugu. ■

ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIAKON KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



HEZKUNTZA KOOPERATIBA
EUSKALDUNA

Guraso eta tutoreen arteko bilerak



HH 0-1 urte: uztailak 14, martitzena, 18:00etan
Matrikula urte osoan zabalik

HH 2 urte: uztailak 15, eguaztena, 18:00etan

**Elkarrizketa pertsonalak
eta informazioa:**

943 78 12 04 • txantxiku@ikastola.eus
(telefono arreta zerbitzua 8:30-12:30)





Nazioarteko Espazio Estazioa lurretik 400 bat kilometro inguruko erradioan mugitzen da, 7,6 km/segunduko abiadan (92 minuturo bira osoa ematen dio lurrari)

Espaziotik iritsiko diren argazkien zain

Satlantis enpresak Nazioarteko Espazio Estaziora bidali duen argazki kameraren fabrikazioan parte hartu du **Iñigo Irizar** fisikari oñatiarrak. Ekainaren 19an hasiko da irudiak bidaltzen.



Iñigo Irizar fisikari oñatiarrak argazki kameraren irudiak prozesatzen egiten du lan

Leioan egoitza duen Satlantis enpresa albiste iturri izan dugu azken asteotan, bertan fabrikatutako argazki kamera bat bidali dutelako Nazioarteko Espazio Estaziora. Maiatzaren 20an Japoniako Agentzia Espazialak jaurtitako espazio-ontzian bidali zuten argazki kamera, eta maiatzaren 25ean akoplatu zen Nazioarteko Espazio Estazioarekin. "Aireratze eta akoplatze faseak ondo irten dira, eta orain instalatzea falta da" azaldu digu Satlantisen lan egiten duen Iñigo Irizar (Oñati, 1989) fisikari oñatiarrak. "Estazio espazialean Japoniak duen moduluaren kanpoko 'balcoian' ipini behar dute kamera hango teknikoek, beso robotizatu bat erabiliz. Ekainaren 10ean egingo dute lan hori eta, dena ondo

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**


Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

bidean, hilaren 19an hasiko gara aurreneko irudiak jasotzen". Hogei segundoro aterako ditu lurreko argazkiak; 2.000 inguru, egunean.

Helburua ez da lurreko leku edo eremu zehatz bateko irudiak ateratzea, Irizarrek azaldu digunez. "Ez; misio honen helburua teknologia balidatzea da. Eszena ezberdinetako (hiriguneak, itsasertzak, mugak, ozeanoak, eremu naturalak...) irudiak atera nahi ditugu, emaitzak ikusi, aztertu eta etorkizuneko misio zehatzagoetarako doitu ahal izateko". Halako kamerek itsasontzien petrolio isuriak, alga edo plastikoen ugaritzeak, nekazaritzako uzten patologia, higrometria, suteak edota airean dauden partikulak monitorizatzeko eta kontrolatzeko aukera ematen dute, besteak beste.

TXIKIAK ETA ARINAK

Tamaina eta arintasuna da



Satlantisek espaziora bidali duen iSIM 170 kamerak 16 bat kilo ditu eta 80 zentimetro pixeleko bereizmena

Satlantisek ekoizten dituen kameren indar eta bereizgarri nagusiak. "Gure kamerak bereizmen submetirkoa (80 bat zentimetroko pixel erresoluzioa) eskaintzen du, eta kalitate maila hori ematen duten merkatuko kameren artean arinena da gurea. Egin kontu, espaziora bidaltzen den kilo bakoitzak 30.000 euroko kostua duela eta, beraz, pisua faktore inportantea da". Satlantisen iSIM 170 kamerak 16 bat kilo ditu eta urtebete pasatxo behar izan dute fabri-

katzeko. "Muturreko baldintzetan —berdin lurraren alde argitsuan dagoenean edo ilunetan— enfokea eta kalitate optikoa mantenduko dituela frogatzea izan da erronkarik handienetakoa".

Gobernuek eta konpainia handiek gero eta mikrosatelite gehiago bidaltzen dituzte espaziora, eta eten barik haziz doan merkatua da *New Space* delakoa. Beraz, esan beharrik ere ez dago mugarririk inportantea izan dela bai Satlantis enpresarentzat eta

baita Euskadiko aeronautika sektorearentzat ere, oro har. "Itxaropen edo espektatiba handiak daude proiektu honen inguruan eta, egia esan, presio handia izan dugu azken urtean, oporrei ere uko egin behar izan diegularik, baina oraingoz dena ondo doa eta pozik gaude".

Satlantis enpresa 2014an sortu zen eta gaur egun 28 langile ditu Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako kanpusean duen egoitzan. Une honetan beste kamera bat prestatzen ari dira, urte amaieran entregatzeko. Oraingoz, sateliteentzako doitasun handiko kameren ekoizpenean zentratuta dago Satlantis, baina etorkizunean neurririk diseinatutako mikrosateliteak fabrikatzea da ametsa, hiru mikrosatelitez osatutako konstelazio batek lortzen dituen datuetan oinarritutako zerbitzuak eskaini ahal izateko. ■

Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S COOP

2020-2021

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Izen-ematea

Ekainaren 1etik 19ra

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
•Administrazioa eta Finantzak •Zuzendaritza Idazkanitza •Salmenta Kudeaketa	•Automatizazioa eta Robotika Industrial •Sareko Informatika Sistemen Administrazioa •Fabrikazio Mekanikoko Diseinua •Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa •Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
onarpema.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

PARA XUTIS MOA



ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Muturreko esperientziak gustuko dituztenentzat



Antonio Merinok bi urte daramatza paraxutismoa praktikatzen eta, dagoneko, 148 salto egin ditu.

Hegodun buzoarekin hegan egitea eta Base jauzia praktikatzea dira bere hurrengo erronkak.

Probatu dutenek esperientzia bakarra dela diote, paregabea. Eta halaxe ziurtatu digu Antonio Merino Blancok (Oñati, 1985). “Bizitzan behin, behintzat, probatu beharrekoa”. Berak 148 jauzi egin ditu dagoeneko. *Wingsuit*-arekin (hegodun buzoa) hegan egitea eta Base jauzia dira bere hurrengo asmoak. Emozio, erronka eta arrisku zalea da, bistan denez.

Duela bi urte egin zuen aurreneko jauzia paraxutean. Aste Santuko oporraldia aprobetxatuz, Andaluziara joana zen *Kate surf*-a probatzera, eta han zegoela otu zitzaion “zergatik ez paraxutean salto egin?”, *Youtube*-n ikusten zituen bideoek erakarrita. Pentasatu eta egin. Etxerako bidean, Lillo-ko (Toledo) aerodromoan gelditu, 4-5 orduko formazioa jaso eta hurrengo egunean egin zuen bere aurreneko jauzia abioneta batetik, 4.200 metroko alturatik.

“Lasai nengoela gogoratzen dut... hegazkinera igo arte. Badakizu hogei minutuko hegaldi motz baten ondoren atea irekiko dela. Baina, jada, berandu zen atzera egiteko”. Lehenengo jauzia bi irakasleekin batera egiten da, buzoak duen heldulekueetatik eutsita, kontrola ez galtzeko (ikus 10. orriko irudia). “Keinu bidez, eta belarrian daramazun irrati batetik ematen dizkizute aginduak. Eztakit oso kontziente izan nintzen lehenengo jauzi hartan, baina sentsazioa ikaragarria izan zen, itzela, basatia!”.

Paraxutaren harra barruraino sartu zitzaion Antoniori. Handik

hilabetera Mimizan-eko (Frantzia) aerodromora joan zen, paraxutista lizentzia eskuratu ahal izateko egin beharreko sei jauziak egitera. “Lizentziak, bakarrik salto egiteko aukera ematen du, instruktore barik. Hala ere, lehenengo jauzietan irratia eramaten da belarrian, laguntza gisa”.

MINUTU BATEKO ERORIKO LIBREA

Abionetatik egiten diren jauziak 4.2000 metro inguruko altueratik egiten dira, eta ia minutu bateko eroriko librearen ondoren irekitzen da paraxuta. “Ikasten ari zarenean 1.500 metrora irekitzen da, eta, poliki poliki, esperientzia hartu ahala, gero eta behe-raxeago, 1.000m.-raino”.

Eroriko librearen bitartean, normalean, 220 km/o.-ko abiadura hartzen da, pisuaren, bolumenaren eta gorputzaren posturaren arabera. “Ni 370 km/o.-ko abiadura hartzera iritsi naiz; baina, egia esan, abiadura sentsazioa ez da hainbestekoa izaten, erreferentziarik ez duzulako”.

Hegazkinetik egiten diren jauzietan bi paraxut eramaten dira: printzipala eta ordezkoa, larrialdi egoeretarako, lehenengoak huts egiten badu. Gainera, beste gailu bat eramaten da, kanpaia automatikoki irekitzen duena altuera jakin batera iritsitakoan.

Paraxutismoak harrapatuta dagoela aitortu digu Antoniok. Gutxi gora behera hilean behin joaten da Mimizan-era, “hurbilen dagoelako”, udaberritik udazkenara bitartean. Azarotik Aste Santura arte itxita egoten da, goialdean hotz egiten duelako.

Urte askotan zuekin

☎ 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte
 **MAPFRE**
OÑATI

Eguraldi baldintza onak badira, asteburuan 10-12 jauzi egin ohi ditu. "Behin haraino joanda, aprobetxatu egin behar da".

Lillo (Toledo) eta Mimizan-eko (Frantzia) aerodromoetan ez ezik, Castelló-n, Filipinetan eta Kolonbian ere egin du jauzi, oporraldiak aprobetxatuz. "Filipinetakoa izan zen, duda barik, politena; hango irlak, hango paisaia... Zoragarria!".

Ezinbestekoa den adorea gain, ez omen da aparteko ezer behar paraxutean salto egiteko. "Paraxuta aerodromoan alokatzen duzu, eta buzoa eta kaskoa ere bertan uzten dizkizute. Aurreneko jauzietan beharrezkoa da buzoa, irakasleek heldu ahal izateko eta, gainera, ohikoa izaten delako erortzea lurra hartzeko unean. Baina esperientzia hartu ondoren edozein arroparekin egin daiteke salto".

Kostuari dagokionez, lizentzia ateratzek (formazioa eta 6/7 jauzi) 1.500 euro inguru balio du (Frantzia pittin bat merkeagoa da) eta salto bakoitzak 38€ (abionetara igotzea 29€, eta pa-



raxuta alokatzea 9€). Paraxuta plegatzeak (oso inportantea da) 5€ balio du, baina esperientzia pittin batekin norberak egiten ikasten du. "Noiz edo noiz salto egitea ez da garestia, baina

▲ Antoniore
aurreneko jauzia,
buzotik heltzen di-
oten bi irakasleren
laguntzarekin

engantxatzen bazaitu eta asteburuan 12 jauzi eginez gero, bai".

Hala ere, esperientzia erabat gomendagarria dela dio Antonio. "Bizitzan behin, behintzat, probatu beharrezkoa. Animatuko nuke jendea, merezi du eta!". Psikikoki indartsua izaten eta alaiago bizitzen laguntzen omen du. "Gauza bakoitzari daukan garrantzia ematen ikasten duzu. Ez gehiago". Hain ausartak ez direnentzat, irakasle batekin tandem-ean salto egiteko aukera ere egoten da.

ESPERIENTZIA BERRIAK

Antonio 148 jauzi daramatza soinean jada, eta paraxutismoan dauden modalitate ezberdinak (*Freefly*, *Tracking*, *Belly* edo talde-jauziak...) probatzen ibiltzen da, baina buruan darabilen hurrengo erronka *wingsuit* edo hegodun jantziarekin hegan egitea da.

Wingsuite-arekin salto egin ahal izateko, aurretik paraxutean 150 jauzi eginak eduki behar dira. Beraz, COVID-19ak baimendu bezain pronto joango da



Antoniok Filipinetan egindako jauziko irudiak. Hegazkineko hegaletik zintziilik, eta eroriko librean.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
ONATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40



Antonio, irudiaren ezkerrean, Belly erako talde-jauzi batean.

Antonio Frantziara, falta zaizkion jauziak egitera. “Wingsuite-arekin ere abionetatik egiten da salto, berdin berdin, baina 100 bat metroko eroriko librearen ostean, hegodun jantzia puztu egiten da haizearekin, eta horrek aukera ematen dizu hegan egiteko, ez bakarrik bertikalean, baita horizontalean planeatzeko ere. Airean denbora gehiago egiten da; minutu batetik pasatzen zara bi minutu eta laurdenera, gutxi gora behera. Hasieran buzo txiki bat erabiltzen da, eta esperientzia hartu ahala, gero eta handiagoa”.

Esperientzia eta behar beste trebezia eskuratu ostean, mendi tontorretatik jauzi egin



nahi luke hegodun buzoarekin.

Base jauzia praktikatzeko asmoa ere badu Antoniok. Leku finko batetik egiten den jauziari deitzen zaio horrela. Ingeleseko akronimoa da *Base: building* (eraikina), *antenna* (antena), *span* (zubia) eta *earth* (lurra, horma). Aurretik paraxutarekin

gutxienez 200 salto eginda edukitzea gomendatzen da Base jauzia praktikatzeko hasterako.

Base jauziko paraxuta arinagoa izaten da, baina oihala handiagoa, zehaztasun gehiagoz maniobratu ahal izateko. Garaiera askoz txikiagoa denez, jauzilariak askoz denbora gutxiago dute paraxuta zabaltzeko. Muturreko kiroletan bortitzena eta arriskutsuena da, askoren ustez.

Antioniok buruan darabilen beste erronketako bat da Aloñatik parapentean jauzi egitea eta ondoren parapentea utzi eta paraxutean salto egitea. Bistan da emozio gogorren zalea dela mutila. ■

▲
Wingsuite edo hegodun jantziarekin hegan egitea da Antonioren hurrengo erronka.



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com

LA AKADEMIA

Hezkuntza emozionalaren bidez, gazteen ahalmena garatzen laguntzen duen doako hezkuntza proiektua



La Akademia proiektua 2011n sortu zen Bartzelonan, Garapen Pertsonalean eta Lidergoan aditua den Borja Vilasecaren eskutik. Auto-ezagutzaren eta hezkuntza emozionalaren bidez, gazteen potentziala garatzea helburu duen proiektua da. Pertsonalki edota profesionalki nahastuta eta motibaziorik gabe sentitzen diren 18 eta 23 urte arteko gazteei zuzenduta dago, eta erabat dohainik da. Urte hauetan zehar, estatuko beste hainbat hiritara eta Hego nahiz Erdialdeko Amerikako zenbait herrialdetara (Argentina, Kolonbia, Brasil, Mexiko...) hedatuz joan da *La Akademia* egitasmoa. Donostiara ere iritsi zen orain dela lau urte, eta bertan ibili da bukatu berri den ikasturtean Eider Anduaga oñatiarra. Esperientzia oso oso aberasgarria izan dela aitortu digu.

La Akademia-ren 2019/2020 ikasturtean parte hartu duten gazteetako batzuk.

Urrian hasi eta maiatza amaiera arte, asteazkenero (18:00-21:00) izaten dira La Akademiaren formazio saioak, Donostiako Tabakaleran.

Platonek K.a.-ko IV. mendean Atenasen sortu zuen *Academia*-n inspiratuta, gazteen artean hezkuntza emozionala dohainik sustatu nahi duen proiektua da **La Akademia**.

Hezkuntza arautuan gazteek jasotzen duten formazioa osatzeari du helburu *La Akademia*-k, gazteen eskura jarri tresnak eta baliabideak beraiei burua hobeto ezagutzeko, beraiei mugak gainditzeko eta beraiei bizitzeko agintea hartzeko, bai emozionalki eta baita profesionalki ere.

Ezinezona, jakin-mina eta kezka dituzten 18-23 urte arteko gazteei zuzenduta dago *La Akademia*; beraiei buruak hobeto ezagutzeko, pertsona gisa hobetu eta garatu nahi duten gazteei. Auto-ezagutzaren bidez, gazteek barruan duten onena ateratzen laguntzea du helburu. Beste modu batera esanda, gazteei zoriontsu izaten lagundu nahi die, nor diren deskubrituz eta bizitzari eman nahi dioten norabide edo zentzua aurkituz.

URTEBETEKO FORMAZIOA

Helburu horrekin, bederatzi hilabeteko formazioa eskaintzen du *La Akademia*-k. Hiru orduko tailerrak (18:00-21:00) egiten dira asteazkenero, urrian hasi eta maiatzera arte Donostiako

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

Tabakaleran.

Proiektu pedagogikoa hiru bloke nagusitan banatzen da. Lehenengoan Auto-ezagutza lantzen da, pertsonalitatearen eneagrama, printzipioak, baloreak eta *coaching*-a edo *mindfulness* bezalako tekniken bidez.

Bigarren blokean (*Desarrollo Personal y Liderazgo en Valores*) ikasleek barruan duten potentzial guztia ateratzea da helburua, ingurukoekiko hartu-emanak hobetuz eta mundua ulertzeko eran paradigma aldaketa eraginez.

Hirugarren blokean (*Propósito Vital y Vocación Profesional*) ikasleen talentu eta trebetasunak deskubritzeko teknikak jorratzen dira, beraien baloreekin bat datorren jarduera profesional batera zuzendutako ekintza plana garatuz.

DOHANIK DA

La Akademia-ren formazioa dohainik da, guztiz. Irabazi asmorik gabeko ekimena da, eta bertan lan egiten duten irakasle eta laguntzaile guztiak bolondresak dira, beraien jakinduria, talentua eta hezkuntza emozionalarekiko pasioa altruismoz eskaintzen dutenak. Ikasleak Donostiara joan-etorria bakarrik ordaindu behar du.

Taldeak mugatuak izaten dira; 25 gazte, gehienez. Interesatuak www.laakademia.org webgunean aurkituko dute informazio guztia: ikasturteko programa, helburuak, egutegia eta izena emateko orriak, besteak beste.

EIDER ANDUAGA GARCIA / La Akademia-ko ikaslea

"Oso esperientzia aberasgarria izan da"

Eider Anduaga oñatiarrak (22 urte) amaitu berri du formazioa Donostiako *La Akademia*-n, eta oso positiboki baloratzen du bertan ikasi eta bizitakoa. "Urte batzuk dira neure burua hobeto ezagutzeko prozesuan hasia nintzela. Auto-ezagutza arloko liburuak irakurri izan ditut, eta iaz, ustekabean, *La Akademia* proiektuaren berri jakin nuen ETBko albistegi batean, eta interesgarria iruditu zitzaidan. Hasieran zalantzak izan nituen, asteazkenero Donostiara joan beharra zegoelako, baina azkenean animatu nintzen eta ez naiz batere damutzen".

Hezkuntza emozionalaren arloan gabezia eta hutsuneak ikusten dizkio Eiderrek hezkuntza arautuari eta, beraz, interesgarria eta egokia iruditzen zaizkio *La Akademia* bezalako ekimenak. "Eskolan ezagutza akademikoari ematen zaio lehentasuna, eta ez hainbeste sentimenduei, emozioei. Ondorioz, askotan, galduta, nahastuta eta desorientatuta sentitzen dira gazteak eskolako ibilbidea amaitutakoan".

Bere burua hobeto ezagutzen lagundu dio *La Akademia*-k. "Askoz ere argiago ikusten dut orain nire bizitza. Nire egunerokoan askoz ere kontzienteagoa izaten lagundu dit, eta tresna edo baliabideak erakutsi dizkit, nire bizitzan hobetzen jarraitzeko, bai orain eta baita etorkizunean ere. Gainera, jende zoragarria ezagutu oso prozesu polita izan da. Tailerrak oso dinamikoak dira, eta gomendagarria iruditzen zait, benetan".

Garapen pertsonaleko prozesuak taldean ere egin daitezkeela ikasi du Eiderrek. "Uste nuen halako prozesuak pertsonalagoak zirela, baina hemen konturatu naiz beste pertsona batzuekin ere egin daitezkeela. Giro oso ona dago, harreman estuak sortzen dira, eta lagun asko egin ditut. Hau hasi aurretik ez nuen sekula pentsatuko jendearekin lortu dudako konfiantza maila". Tailer batzuk oso "potenteak" izaten omen dira, barrena askatzea eskatzen dutenak, eta halako momentuetarako 'Laguntzaile'aren figura ere badu *La Akademia*-k. "Tailerren batean ez bazara eroso sentitu edo ez bazara gustura atera, laguntzailearekin hitz egiteko aukera duzu asteen zehar. Beharra izanez gero, ikasturtea hobeto eramaten laguntzen dizuten pertsonak dira laguntzaileak".

Berarentzat oso positiboa izan denez, Eiderrek beste gazte batzuei ere gomendatzen die *La Akademia*. "Ezinezona eta kezak dituzten gazteak animatzen ditut; beren buruari galdeak egiten dizkietenak. Sar daitezela *La Akademia*-ren webgunean, ikus dezatela zer eskaintzen duen, eta barruan zerbait mugitzen bazaie, aurrera. Ez dira damutuko".

"Eskola arautuan ezagutza akademikoari ematen zaio garrantzia, eta ez hainbeste sentimenduei, emozioei"



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

"Protesia behar dut ibili ahal izateko"

» Roberto Morenori hanka bat moztu behar izan zioten minbiziaren ondorioz. Protesia erosi ahal izateko *crowdfunding* kanpaina jarri du abian

Ondarrutarra sortzez, Oñatin bizi da egun Roberto Moreno (28 urte). Duela bi urte eskumako hanka moztu behar izan zioten, belaun gainetik behera, minbizi baten ondorioz, eta *crowdfunding* edo diru-bilketa kanpaina bat jarri du martxan, normaltasunez ibili eta bizi-kalitatea hobetzen lagunduko dion protesi bat erosi ahal izateko.

Bizimodu normala zeraman Robertok orain dela hiru urtera arte, bere adineko edozein gazteren antzera, baina osteosarkoma batek goitik behera aldatu zion bizitza. Madrilgo Marañon ospitalean egin zioten ebakuntza. Minbizia kendu zioten, eta baita hankako hezurra ere, azalaren barrualdetik protesi bat jartzeko. Baina gorputzak ez zuen onartu, eta infekzio larri baten ondorioz kirolfanoan sartu behar izan zuen berriz ere, Donostiako Unibertsitate Ospitalean.

Ebakuntza ostekoa ere oso gogorra izan zen, eta asko borrokatu ondoren, indar barik geratu zen Roberto, hustuta, eta hanka mozteko erabakia hartu behar izan zuen, bizirik jarraitu ahal izateko.

OINARRIZKO PROTESIA

Hanka moztu ostean, oinarritzko protesia ipini zioten eta horrek ibiltzeko aukera ematen dio, baina muga askorekin. Ezin da erosotasunez mugitu (makuluen laguntza behar du) eta, jakina, kirolak ere ezin du egin. Eta hori oso gogorra eta etsigarria izaten ari da beretzat, Roberto oso aktiboa eta kirolaria izan baita beti. "Sentitzen dut ezin dudala bizitza betea egin".

Merkatuan badira mugikortasuna eta bizi-

DIRU EKARPENAK EGITEKO

https://www.gofundme.com/f/necesito-protesis-genium-x3-para-poder-andar?utm_source=whatsapp-visit&utm_medium=chat&utm_campaign=p_cp+share-sheet



Ebakuntzaren ostean ipini zioten protesia oinarritzkoa da, eta asko mugatzen du Robertoren mugikortasuna

JUANJE MARGOAK

T. 627 818 247

COINBROKER
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

943 089 006 | oinati@coinbroker.eus
www.coinbroker.eus

kalitatea hobetzen lagunduko lioketen protesiak, baina oso garestiak dira. Mugikortasun mailarik handiena ematen duen *Genius x3* markako protesiak 80.000 euro balio du eta Robertok ez dauka halakorik erosteko diru baliabiderik. Horregatik, bere lagunen bultzadarekin crowdfunding kanpaina bat jarri dute martxan *Gofundme* plataforman. "80.000 euro horiek lortzen ahaleginduko gara, baina merkeagoak diren beste protesi batzuen aurrekontuak ere (39.000 eta 12.000 eurokoak) eskatu ditut. Ez dira bestea bezain onak, jakina. Ahal duguneraino iritsiko gara, baina gauza bat garbi daukat: nire bizi-kalitatea hobetu nahi dut, eta horretarako mugikortasun handiagoa behar dut". Bere Instagrameko kontuan (@roberpalista) daude ikusgai protesien aurrekontuak, besteak beste.



Hain gazterik zure burua hanka bakar batekin ikustea oso gogorra da. Nire bizi-kalitatea hobetu nahi dut eta horretarako mugikortasuna hobetzen lagunduko didan protesia behar dut.

Une oso txarrak bizi izan dituela aitortu digu. "Hain gaztetan zure burua hanka bakar batekin ikustea oso gogorra da, bai fisikoki eta baita psikologikoki ere. Zorionez, inguruko jendeak lagundu dit une horiek gainditzeko, zuloan erori barik, eta etorkizun hobe baten alde borrokatzeko indarrak berreskuratzen". Aurrez eskerrak eman nahi dizkie diru ekarpenen bat egingo duten herritar guztiei. ■



Olakuako kirol gunea berrituta

Partaidetzazko aurrekontu prozesuan herritarrek aukeratu-tako proposamenetako bat zen Olakuako kirol gunea hobetzea. Lanak zatika egin dira; argiteria berritu zen aurrena, saskibaloia kanastak ere berritu ziren, itxitura jarri zen supermerkatu aldeko porteriaren atzealdean, eta lanak borobiltzeko erretxina geruza eman zaio jolas guneko zoruari. Horrela, gutxiago irristatzea lortu nahi da eta kirol jarduera goxatzea.

Udalekurik ez, zaintza zerbitzua bai

Covid-19a dela eta aurtengo ezingo dira ohi bezala egin Udaleku Irekiak, Arte Udalekuak eta Udaoko Kirol Kanpaina, baina Udalekuek izena emanda zeuden haur eta familiei zuzendutako zaintza zerbitzu berezia eskainiko du udalak, bost laguneko taldetan antolatuta, ekainaren 29tik uztailaren 24ra (9:00-13:00). Prezioa berbera izango da. Zerbitzu hau baliatu nahi ez duten familiek ekainaren 5a baino lehen jakinarazi behar dute udalaren webgunean edo HAZ bulegoan.



Elkar Heziko
HAUR ESKOLA_n,
lehen urratsetatik elkarrekin.

Inguru segurua, lasaia eta goxoa.
Egokitzealdi PERTSONALIZATUA, haurren
eritmoa errespetatuz.
Haurren garapena estimulatuzko MATERIAL eta
ekintzak; esperimentazio gela, **estimulazio**
goiztiarra...

Ordutegi zabala (07.30-19.00) eta MALGUA (zuen
beharretara egokitzen gara).
Bertan prestatutako janaria.
Jardunaldiko gora-beheren komunikazioa egunero.
Arropa garbiketa.

BISITA PERTSONALIZATUAK:
idazkaritza@elkarhezi.eus
943 71 82 72



342.000 euroko laguntza lerroa onartu du udalak, herriko dendari, ostalari eta zerbitzu sektoreko profesionalentzat

Oñatiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreko enpleguari eta jarduerari eustea helburu duen 342.000 euroko ez-ohiko diru laguntza lerroa onartu zuen udalbatzak, aho batez, maiatzaren 28ko osoko bilkuran.

Covid-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondorioz, jarduera etenda eduki behar izan duten hirugarren sektoreko autonomoek eta 10 langile baino gutxiagoko mikroenpresek eskuratu ahal izango dituzte dirulaguntza hauek. Egoitza fiskala eta lantokia Oñatin izan beharko dute, eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluan araututako 'Jarduerak eteteagatik aparteko prestazioaren' titular izatea eskatuko da. Edo prestazio horren onuradun izan ez den kasuetan, jarduera etenda izan duela justifikatzea.

Gainera, alarma egoera amaitutakoan lan jarduerari berriro ekitea edo eustea eskatuko da, eta alta egoeran egotea gutxienez sei hilabetez, arrazoi justifikatua dagoen kasuetan salbu.

KOPURUAK ETA EPEAK

Establezimendua itxita egon den hilabete bakoitzeko **300 euroko** laguntza finkoa emango da. Gainera, langile kopuruaren arabera dirulaguntza (60€ - 35€ artean langile bakoitzeko eta hileko). Kalkulua egiteko, martxoaren 14an lan jardun osoan ari ziren pertsonak unitatetzat hartuko dira, eta jardun partzialean ari zirenak, unitatearen frakzio gisa. Norberaren konturako langile autonomia ere hartuko da kontuan.

Bestalde, establezimendua itxita egon den hilabeteetan argindarra, ura eta hondakin bilketari dagozkien gastuei aurre egiteko laguntzak ere emango dira. Kalkulua egiteko, 2020ko martxoaren 1etik establezimendua ireki den hilabete amaiera arteko epea hartuko da kontuan. Ez da gastu hautagarritzat hartuko fakturako BEZari dagokion kopurua.

Dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituen establezimendu bakoitzak 2.000 euro jaso ahal izango ditu gehienez.

Dirulaguntza deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik hasita uztailaren 30era arteko epea egongo da eskaerak aurkezteko udaletxean, aurrez aurre, posta arruntez edo Internetez.

Sarrera-data ordenaren arabera emango dira dirulaguntzak, deialdian zehaztutako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, dirulaguntza honetara bideratutako gehienezko kopurua amaitu arte.

► NORENTZAT

COVIDaren ondorioz jarduera etenda izan duten autonomo eta 10 langile baino gutxiagoko mikroenpresek eskuratu ahal izango dute laguntza

► KOPURUAK

Establezimendua itxita egon den hile bakoitzeko **300€ko** laguntza finkoa emango da, eta 60-35 euro artekoa (langile kopuruaren arabera) langileko eta hileko. Argindarra, ura eta hondakin bilketako gastuei aurre egiteko laguntzak ere emango dira

► EPEAK

Uztailaren 30era arteko epea egongo da eskaerak aurkezteko

Foru Funtsa murrizteko erabakia aldebakartasunez hartu izana egotzi dio udalak aldundiari

Gipuzkoako foru aldundiaren zerga bidezko diru-bilketan izan den jaitsieraren ondorioz, herrialdeko udalei zuzendutako foru funtsa %20 murriztea eta murrizketa hori aurretan aplikatzea erabaki du diputazioak. Horrek esan nahi du, Oñatiko udalak 1,6 milioi euro gutxiago jasoko duela aurretik; 8,2 milioi jasotzea aurreikusita zegoen (udal aurrekontuaren %48, gutxi gora behera), baina 6,6 milioi jasoko ditu.

Foru funtsa modu horretan murrizteko erabakia dekretu bidez hartu du diputatuaren kontseiluak, eta horrek herrialdeko zenbait udalen haserre eragin du, baita Oñatiko udal gobernuarena ere. EH Bilduk uste du halako erabakiak Gipuzkoako Finantzen Kontseiluan eztabaidatu eta adostu behar direla, udalekin batera, eta, beraz, mozio bat onartu du foru aldundiari eskatuz berraztertu dezala aldebakarrez hartutako erabakia.

EAJ AURKA

EAJren udal taldea mozioaren aurka agertu zen. Jeltzaleek diote, apirilaren 2an diputatu nagusiak alkate guztiekin egindako bileran jakinarazi ziela urteko zerga bilketa %20 jaitsiko zela eta horrek ondorioak izango zituela udalarentzat ere. EAJk gaineratu zuen 2008ko krisiaren ondorioz ere jaitsi zela Foru Funtsa, eta Oñatiko udalak 2,4 milioi bueltatu behar izan zituela, Bilduk ezarritako epeetan.

2020ko udal aurrekontua birplanteatu eta hurrengo 2-3 urteetarako plan finantzarioa egitea eskatu dio EAJk gobernu taldeari.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



Irudian (gorriz) ikus daitekeen moduan, Oñatiko Industrialdearen aurrealdean eraiki nahi du biltegia Ulma Eraikuntzak biltegia duen eremuan

Osinurdineko xehetasun-azterketa onartu du udalbatzak

ULMA Polimerok biltegi automatikoa eraiki nahi du bertan

Zubillaga auzoko 88 eta 89 zenbakiak hartzen dituen Osinurdi I-55 Hirigintza Guneko xehetasun-azterketa onartu zuen udalbatzak, hasiera bateko izaeraz, maiatzaren 28ko osoko bilkuran.

LKS Ingenieritzak idatzi duen dokumentu honetan, ULMA Hormigon Polimero kooperatibak Osinurdin eraikin nahi duen biltegi automatikorako aukera ezberdinen inguruko azterketa jasotzen da. Oñatiko Hirigintza Arau Orokorrak ezartzen dute eraikinaren altuerak 16 metroko garaiera gainditzen duenean xehetasun-azterketa egin beharra dagoela, eta ULMA Polimerok 2017an aurkeztu zuen proposamenean 26 metroko biltegia eraikitzea aurreikusten zen.

Orain aurkeztu duen dokumentuak lau aukera edo alternatiba aztertzen ditu biltegia eraikitzeko, bi baldintza edo oinarri lehenetsiz betiere: biltegiaren funtzionaltasuna eta eraikinaren inpaktu bisuala gutxitzea.

ULMA Polimerok hobetsi duen proposamenaren arabera, 88,13 metro luze eta 14,51 metro zabal dituen biltegia eraikiko litzateke

partzelaren hego-ekialdean, Oñatiko Industrialdearen aurrealdean. Eraikinak 19 metroko altuera izango luke eta beste 6 metro sestra edo lur-arrasaren azpitik. Biltegiaren ondoan moila edo nasa batzuk egokituko dira, ULMA Polimeroren egungo eraikinaren segidan, kamioiek zamaketa lanak egin ahal izateko.

Biltegi automatiko berri hau gaur egun ULMA Construcción-en biltegia dagoen eremuan eraikiko litzateke, eta eraikuntza arloko kooperatibak Munazategiko II.12 sektorerara eramango luke bere jardura.

ULMA Polimeroren drainatzen-kanalen jardura hazkunde handia izaten ari da azken urteotan, eta hurrengo urteetarako aurreikuspenak ere onak direnez, kooperatibak beharrezkoa ikusten du biltegia eraikitzea, stock-a bermatu eta entregak garaiz egin ahal izateko.

Udalak jende agirian jarriko du dokumentua 20 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta hedadura gehien duen egunkarian argitaratuta, nahi duenak aztertu eta alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Emantzipaziorako udal dirulaguntzak eskatzeko adin tartea zabaldu du udalak

Orain arte 18 eta 30 urte arteko gazteek eska zezaketen, baina aurrerantzean 35 urte artekoek eskuratu ahal izango dute emantzipaziorako udalaren dirulaguntza.

Udalak hileko alokairu prezioaren erdia estaltzeko laguntza ematen du, 250 euroko mugarekin. Horretarako, onuradunek 12 hilabeteko alokairu kontratua izan behar dute, gutxienez, Oñatin erroldatuta egon behar dute azken bi urteetan, eta urteko diru sarrerak gehienera 28.000 euro izan daitezke.

Iaz 34 eskaera jaso zituen udalak eta 53.207 euro banatu zituen laguntzetan. Urriaren 16ra arteko epea dago eskaerak aurkezteko (www.oñati.eus webgunean dago ikusgai deialdia).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren *Gaztelagun* emantzipaziorako dirulaguntza eskaerak ere Oñatiko HAZ bulegoan tramitatu ahal izango dira aurrerantzean. Ez dira bateragarriak, eta eskatzaileraren profilaren arabera batera edo bestera bideratu beharko da eskaera.

2021-2022 Partaidetzazko Aurrekontuak bertan behera

Aurtengo urtean zehar garatu nahi zuen udalak '2021-2022 urte aldiko Partaidetzazko Aurrekontuak' egitasmoa. Baina Covid-19ari aurre egiteko eza-rritako neurriak kontuan hartuta, herritarren arteko aurrez aurreko bilerak ezingo direnez egin, prozesua bertan behera uztea erabaki du udalak.

 **Mekalki**
S. Coop. **mekanizatuak**
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

CaixaBankek furgoneta oparitu dio Elkarzabal elkarteari



CaixaBank bulegoko langileak eta Elkarzabal elkarteko ordezkari eta langileak furgonetarekin

Argazkian ikusten den furgoneta oparitu dio Oñatiko CaixaBanken bulegoak Elkarzabal elkarteari. Caritasetik sortua, lanaren eta formazioaren bidez integrazioa sustatzen duen elkarte da Elkarzabal, eta une honetan bi aktibitate ditu martxan: Zaintza zerbitzua eta Baratzeak. Azken aktibitate honetan bost pertsonak dihardute lan okupazionalen, eta larunbatetako azokan nahiz otarren bidez saltzen dituzte berriak ekoiztutako barazkiak. Ortuko produktu eta lanabesen garraiorako ezinhobe etorriko zaie ibilgailu berria, eta beraz oso eskertuta daude jasotako dohaintzarekin.

Caixabanken lehenago ere lagundu izan die gizarte mailan (inklusiua, berdintasuna, lanpostuen sorrera...) lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkartei (Trauti, Bizipoz, jangela sozialak...), baina Elkarzabali egindako dohaintza da La Caixaren Gizarte Ekintzak Oñatin orain arte egin duen era honetako ekarpen handiena.

5G teknologia Oñatin ezartzearen kontrako sinadura bilketa martxan

5G teknologiaren kaltegarritasun eza frogatu bitartean, Oñatin teknologia horren ezarpena geldiaraztea eskatzen duen sinadura bilketa kanpaina antolatu dute *Ixutu Begixak* eta *Informa-Tu* taldeek. Gure osasuna jokoan dagoela ohartarazten dute, eta Europako Kontseiluaren 1815 ebazpeneko gomendioei jarraiki, zientzialariz osatutako aditu talde batek behar diren bermeak eskaini arte, ardura-printzipioa ezarri eta 5Garen instalazioa herri mailan gelditzea eskatu nahi diote Udalari.

Ildo horretan, sinadura bilketa jarri dute martxan herriko hainbat dendatan: *Luar, Marku, NI, Odriozola, Garai, Euro Denda, Egaña, Kiku, Trikitx, Maibi, Hirukar, Irizar, Haritza, Amalur, Sillero, Sua, Ogiberri, Candeluka* eta *Kuttun*. www.change.org plataforman ere sinatzeko aukera dago, ekainaren 10era arte. Ondoren udaletxera eramango dituzte batutako sinadurak.



Herriko hainbat dendatan sinatu daiteke ekainaren 10era arte.

3 MILIOI KILOMETRO OINEZ, presoen auziari irtenbidea emateko

'IZAN BIDEA, IBILTARIEN SAREA' izeneko dinamika jarri du abian SAREk preso eta iheslarien auziari behin betiko aterabidea emateko eta, azken finean, bakerako eta elkarbizitzarako bidea egiteko asmoz.

Erronka gisa planteatu dute ekimena: Euskal Herriak duen biztanle adina kilometro (3.127.326) egitea oinez, denon artean, bakarka nahiz taldeka.

Horretarako, telefono mugikorrerako egokitu duten aplikazio bat deskargatu beharko da, ekimenean parte hartu nahi duten pertsona edo elkarteek izena emateko eta kilometroak zenbatzeko. Oinez egindakoak ez ezik, bestelako ekintzen bidez (zunba-maratoiak, dantzaldiak...) egindako urratsak ere kilometro bihurtuko ditu aplikazioak.

Azken batean, ibiltari-sare handi eta zabala sortzea da helburua, eta bidea egitea denon artean: etxerako bidea, elkarbizitzarako bidea, bakerako bidea.

SAREren ustez une bereziki garrantzitsu baten aurrean gaude, Euskal Herrian "askatu beharrean" dauden korapiloak askatzeko: batetik, oraindik indarrean den salbuespeneko legedia bertan behera uztea. "Honek, bereziki senideak zigotzen dituen dituen urruntze politika bertan behera geratzea ekarriko luke, eta presoei dagokien etxeratze prozesua hasteko bidea zabalduko litzaieke". Eta, bestetik, biktimak guztien aitortzan, erreparazioan eta elkarbizitzan urratsak ematea.

Horregatik, gizarte aktibazioa indartu nahi du SAREk, presoen auzia eta elkarbizitzan sakontzeko beharra erdigunera ekarri, eta Espainiako gobernuak hilabete hauetan eman dituen urrats xumeak finkatzeko eta sendotzeko. Informazio gehiago: <http://sare.eus/izan-bidea>.



Zure etxebizitzaren hobetzeko prest

Amaia igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Baserrien eta eraikinen zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
-Ilgogailu eta 0 kotara proiektuak -Fatxadak isolatzeko proiektuak

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati



Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing



Arantzazuko Ama, 3 behea

100
m²



Distantziamendua
eta higiene neurriak
bermatuta



• Hizkuntzaren 4 alderdiak
jorratuko dira

• Haurrak: 4 urtetik gora:
jolasak, ipuinak...

• Haur koskorragoak eta gazteak:
hizkuntza sakonago landu nahi
dutenentzat (azterketa ofizialeta-
rako prestakuntza) edota eskolan
landutakoa indartzeko klaseak

• Helduak: Oinarrizko ezagutza,
mintzamen taldeak...

• Talde txikiak 6-8

• Teknologia berriak

Maite Aiestui Kortabarria

20 urte baino gehiagoko
esperientzia irakaskuntzan

Izen ematea
ZABALIK
943 53 36 57
4sgoiena@gmail.com



www.jabierostarbe.eus

• Irisgarritasuna

• 2 Komun, bat dibertsitate funtzionala
duten ikasleentzat

• Kalegoienako parking-a, ondoan





AUZOKO

kultur aniztasunetik euskararako bidea

Ikasturte berri bat, zazpigarrena osatu du AUZOKOk, eta azken txanpan COVID-19ak baldintzatutako ikasturtea izan bada ere, gauza bat argi dago: gero eta sendoago eta indartsuago dagoen ekimena da.

Euskaltzaleen Topaguneak, Oñatiko udalaren laguntzarekin, 2013an abian jarritako programa da AUZOKO. Aniztasuna du oinarri; hau da, herrian ditugun kultura eta hizkuntza desberdintasunak aintzat hartzea eta elkar ezagutzea da helburua, euskara eta euskal kultura ardatz hartuta.

Beste modu batera esanda, euskaratik urrun bizi diren herritarrak euskarara hurbiltzea da AUZOKOren helburua, modu parte-hartzaile

eta horizontalean, denen jatorrizko hizkuntzei aitortza eginez, hizkuntza desberdinetako herritarrak harremanetan jarritz eta elkarren arteko zubiak eraikiz, euskararen bidez. Euskal hiztunentzat ere ekimen interesgarria da AUZOKO, gure herrian dagoen hizkuntz eta kultur aniztasunaz jabetzeko lagungarria baita.

AUZOTARRAK eta AUZOKIDEAK

Bi zutabe ditu AUZOKO programak: alde batetik AUZOTARRAK (euskaraz dakitenak) eta bestetik AUZOKIDEAK (euskaraz ez dakitenak, euskarara hurbildu nahi dutenak). Gakoa da, *auzokideek* euskararako ibilbidea egitea *auzotarren* eskutik. Horregatik, bi perfilak

↓
*Euskaratik urrun
bizi direnak
euskarara
hurbiltzeko asmoz
sortutako ekimena
da Auzoko, herrian
dauden kultura
eta hizkuntz
desberdinak
aintzat hartuz eta
balioan jarritz*

dira beharrezkoak, egitasmoa arrakastatsua gerta dadin. Beraz, herritar guztiak daude gonbidatuta AUZOKOn parte hartzera. Gaur egun 50 bat parte-hartzaile ditu, 20 bat herrialde desberdinetakoak jatorriz.

EKITALDI UGARI

AUZOKOn parte hartzen duten Auzokide eta Auzotarrak astean behin elkartu ohi dira Bidebarrieta kaleko lokalean, eta ekintza ezberdinak egiten dituzte (jolasak, tailerrak, afari tematikoak...) euskara eta euskal kulturarako bidea egiten laguntzeko, taldekide guztien kulturak aintzat hartuz, lagun arteko giro goxo eta atseginean.

Asteroko saioez gain, tarteka ekintza osagarriak egiten dituzte, beste herritar batzuekiko harreman sareak sortzeko asmoz. Aurten, adibidez, Natur Eskolak antolatutako erreka garbiketa saioan parte hartu zuten urrian; euskal dantzen inguruko ikastarotxo bat ere egin zuten azaroan, Oñatz dantza taldeko kideen eskutik ('Salsa' pittin bat ikasteko aukera ere izan zuten, *auzokide* bati esker); Gaztelekuan egin zen kontzertu baten antolakuntzan ere (sarrera eta taberna zerbitzua) ere parte hartu zuten, eta Oñatiko inauterietan ere parte hartu zuten otsailean, Antixena gaztetxeo lagunekin batera.

Herriko jendea ezagutu eta harreman sareak sortzeko ez ezik, ekitaldi horiek oso lagungarriak dira asteko saioetan ikasitakoa praktikan jartzeko: agurrak, nork bere buruaren aurkezpenerako esaldiak, tabernako ohiko esaldiak, elkarriketa motzak...

COVID-19ak BALDINTZATUTA

Koronabirusak eragindako alarma egoerak baldintzatu egin du ikasturteko azken txanpa, baina irudimena landuz, horri ere aurre egiten asmatu du AUZOKOk. Saio telematikoen bidez elkarren arteko harremanak lantzen jarraitzen dute eta, gainera, bingo birtualak edo 'Egunean behin' erako joko bat sortu dute, saioetan ikasitakoa erreparasatzeko. Bizi dugun egoera berezi honek balio izan du ikusteko jendeak parte hartzeko gogoia eta ilusioa duela, eta gauza bat argi geratu bada, zera da: AUZOKO lehen baino indartsuago dagoela! ■



Konfinamendu egoerari aurre egiteko, saio telematikoak egin dituzten AUZOKOk kideek. Besteak beste, bingo saio birtualak antolatu dituzte

➔ AUZOTAR eta AUZOKIDeen iritziak


CAROL MAESTRO WATSON AUZOTARRA



Auzokok jatorri ezberdinetako pertsonak ezagutzeko aukera eman dit, baita Oñatin jaioetakoak ere. Talde dinamiken bitartez elkar ezagutu eta denboratxo bat elkarrekin partekatzen dugu, eta horrela gure arteko sarea sortuz doa. Sare hau oso aberasgarria da. Euskara ardatz izanik, gure herriko kultura eta hizkuntza aniztasunaz jabetzea dakarkigu, eta elkarren berri izateko aukera ematen digu, besteak beste. Astean behin ordu eta erdiz elkartzen gara eta gure artean giro lasaia, atsegina eta alaia dago. Oso esperientzia polita da!

gomendatzen diot; jende atseginaz inguratuta euskara eta kulturak ikasteko modu bikaina da!

EDURNE SAEZ AUZOTARRA



Orain dela bi urte Auzoko ezagutzeko aukera eduki nuen. Hasieratik iruditzen zitzaidan oso aukera polita euskararen bitartez beste kultura, ohiturak eta batez ere, gure artean bizi diren beste pertsonak (hemengoak eta kanpokoak) hobeto ezagutzeko. Pertsonalik oso aberasgarria izaten ari da.

ELENA ZANI AUZOKOIDEA



Aupa! Ni Elena naiz eta Italiakoa naiz! Irailean iritsi nintzen Oñatira unibertsitatean ikasteko helburuarekin. Egundak Auzokoko gonbidapena jaso nuen zeinetan adiskidetasuna partekatzeko eta euskal kulturari buruz gehiago ikasteko astean behin elkartzen den jende talde honetara gonbidatzen ninduten. Auzokon egon nintzen lehen alditik, ez dut inoiz saiorik galdu! Pozik nago Auzokoko jendea ezagutzeko aukera eduki izanagatik, oso aukera polita izan baita. Horregatik, lagunak egin nahi dituen eta Euskal Herriarekin konexio bat sentitu nahi duen edonor animatzen dut parte hartzera. Gora Oñatiko Auzoko!

ZOHAIB AFZAL CHOHAN AUZOKIDEA



Kaixo! Ni Zohaib Afzal Chohan naiz, Pakistangoa naiz eta Oñatin bizi naiz. Oñatin ia bi urte daramatzat eta urte bat Auzokon. Auzokon parte-hartzea esperientzia zoragarria izan da. Auzokon jatorri eta kultura desberdinetako jendea ezagutu dut. Auzokok familia giroan elkar ezagutzeko aukera eskaintzen digu. Jarduera desberdinen bidez euskara ikasten laguntzen digute. Astean behin daukagu saioa eta ni egun hori iristeko zain egoten naiz. Oñatiko jendea oso lagunkoia da. Jende guztiari Auzokon parte hartzera



NAGORE GONI
argazkilaria

NAN ETA PASAPORTE ARGAZKIAK — KOPIAK PAPEREAN
astelehen eta asteazkenetan 10:00-13:00 eta 17:00-19:00

Lope Agirre, 8, behea nagoregoni@nagoregoni.com Tel. 639238880 www.nagoregoni.com

Selma Huxley eta Oñati

Orain dela 47 urteko uztaillean Selma Huxley alargun gaztea eta bere lau seme-alaba Oñatira iritsi zirenean, ez zuten, beharbada, pentsatuko gure herriarekin eta txantxikuar askorekin hain harreman estua eta iraunkorra izango zutenik.

Jerardo Elortza



Helburu garbi eta jakin batekin zetorren ikerlari anglo-kanadiarra: XVI. mendeko euskal arrantzaileek Kanada aldeko Labrador eta Ternuako uretan eta lurretan utzitako aztarnak artxiboetako dokumentu zaharretan arakatzea eta aztertzea. Hartarako iturririk oparoenetakoa garai hartan Oñatiko unibertsitate zaharrean kokatzen zen Gipuzkoako Protokoloen Artxiboan aurkitu zuen. Hainbat gizaldirako eskribau eta notario gipuzkoarrek jasotako agiriak zeuden bertan, gai desberdinei buruzko argibide eta informazio aberatsak gordezten zituztenak.

Zenbat ordu pasatu ote zuen Selmak artxiboko gela hotz haietan, irakurketa nekezeko legajotzarren artean, ezkutatzen zituzten altxor baliotsuak deskubritu eta ezagutarazi guran! Garai hartan ez zegoen artean artxibozain ofizialik; Jose Maria Agirrebaltzategi, parrokiako apaiz-koadjutorea, ardurtzen zen neurri batean zeregin horietan eta, egia esan, hutsune garrantzitsua bete zuen. Agirrebaltzategik maiz uzten zion artxiboko giltza Huxley andreari, bakar bakarrik bere miatze-lanetan jarrai zezan, berandu arte sarritan. Ahalegin horien ondorioz, emaitza bikainak lortu zituen Selmak, hainbat aldizkari zientifiko eta liburutan plazaratu zituenak. Ezagunena, agian, **Etor** argitaletxeak

Enrike Aierberen ekimenez eta Selma-ren zuzendaritzapean publikatu zuen **Itsasoa 3** liburukote trinko eta dotorea izango da. Eta besteren artean, protokoloen artxiboan topatu zuen dokumentu garrantzitsu baten bitartez, zuzenean eta zehatz-mehatz jo ahal izan zuten 1978an Red Baye-ko uretan 1565ean hondoratu zen San Juan izeneko euskal arrantzaleen itsasontziaren bila. Artxi-bozainen esanetan, antzinako agirien gordetegi gipuzkoar-oñatiarrak babesten ditu egungo Kanada estatuari buruzko idatziririk zaharrenak.

Kanadan jaiotako Barkham/Huxley-tarrak ere, Selma eta Brian-en lau seme-alabak alegia, hainbat urte bizi izan ziren Oñatin, batzuk beste batzuk baino gehiago, herritar askorekin oraindik ere

eten ez diren erlazioak eta adiskidetasunak mantenduz. Tom, Oriana, Mikel eta Serena ezagunak ziren hemen, lehena eta azkena bereziki, gure artean denbora dezente igaro baitzuten. Tomas arotz-lanetan trebatu zen Etxeaundiko Etxezarreta anaiekin, unibertsitateko errestaurazio-zereginetan parte hartuz; gainera, txistua jotzen ere ikasi zuelako, etxeko zen herriko txistularien eta **Oñatz** taldeko dantzarien artean. Serenak, berriaz, ikasketak hemen eta Ingalaterran burutu eta gero, Oñatin eta Bergaran ekin zien irakasle-lanei lehendabizi; eta geroxeago sortu berria zen Lege Sozio-logia Institutuan jardun zuen zazpi urtez, protokoloen artxiboaren ondoan hain zuzen ere, 1996an Bartzelonara joan aurretik. Oriana, filologia- eta arkeologia-ikasketak Ingalaterran eta Mexikon



Selma 1985ean, Unibertsitate Hiribidea igaro eta Protokoloen Artxiborako bidean.



S. Huxley, 2016ko apirilko omenaldian.

gauzatu ondoren, nerabezaroan ondo ezagutu zituen lurralde haietan hamaika indusketa-kanpainetan parte hartu zuen. Mikelek, berriz, amaren ildoari jarraitu zion, eta Ternuako euskal epopeiaren inguruko lanetan aritu eta ari da aspaldian. Dena den, kanpotik ibili arren, behin eta berriro bueltatu izan dira hainbeste estimatzen duten Euskal Herrira eta Oñatira, euren bigarren sorlekutzat jotzen duten lurretara.

Selmari asko gustatzen zitzaion kale aldean ez ezik Oñatiko baserri-giroko

lekuetan ere paseoan ibiltzea, bakarrik nahiz lagunekin: Garagaltza, Zañartu, Torreauso, San Martin, Berezaio, Murgia eta beste auzo batzuk ondo ezagutzen zituen; zer esanik ez Arantzazu eta Urbiako parajeak. Herriko ekimenetan ere parte hartu zuen: adibidez, Oñatiko errekek garbitzeko egin zen lehenengo kanpainan; **Kapirixo** taldekoei, kultura-ondasunak babesteko elkarte sortzekotan genbiltzanean, horretan aspalditik ziharduen Erresuma Batuko **National Trust** erakundearen gaineko informazio garrantzitsua eskuratu zigun; bere proiektu nagusia gauzatu ahal izateko, hemengo eta beste herri askotako pertsona eta taldeei eskatu zien laguntza eta lankidetzat; Oñatin bertan, garai eta ideologia desberdinetako hainbat alkate, agintari eta herritarrekin izan zuen harremana.

Kostata baldin bazen ere, aitortu zitzaion halako batean Selmari bere ikerketa-lanen meritua. Kanadan lehendabizi, Euskal Herrian dezente geroago. Oñatiko herriak ere omenaldi hunkigarria eskaini zion 2016ko apirilean unibertsitate zaharreko areto nagusian ospatu zen ekitaldi ederrean. Orduantxe iragarri zen **Selma Huxley Barkham** izeneko liburu-bilduma



Selma Huxley bekako lehen argitalpena.

sortzen zuela Oñatiko udalak, txantxi-kuarrok berarekin dugun zorra agertu nahian. Beka bat eratu zen hartarako, historian zehar emakumeek egin dituzten ekarpenak erakusteko asmoz. Egitasmo horren lehenengo emaitza 2019an kaleratu zuen udalak, Jone Arrazolak eta Irati Garaik moldatutako **Oñatiko emakumiak errekaetan** liburuaren bitartez. Bilduma horretako bigarren lana ere abian da. Polita izango litzateke, Selmak eta bere familiakoek Oñatin izandako bizipen eta harreman ugariak azalduz, beste liburu bat idaztea.

Lanbide Heziketa OÑATIN



Kalitatezko Hezkuntza:
Publikoa eta Dohakoa

Erdi Mailako Heziketa Zikloak

- ◆ Mekanizazioa
- ◆ Mantentze lan-elektromekanikoa
- ◆ Natur Inguruneke eta aisialdiko Gidaria



dual



AURREMATRIKULA

Ekainak 1-19

Idazkaritza zerbitzua

Aurretik hitzordua hartu behar da

INFORMAZIOA

www.onati.net

info@onati.net

943 899 300



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñati Udal



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udal

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

ARRISKUAREN JABETZAZ

Iñaki Idigoras Igartua

Birusak herrian eragin duen egoera batek gogora ekarri dit hamabost bat urte badiela bizitako beste bat. Olabarrietako auzo-batzarra osatzen genuenok EAJk kudeatzen zuen udaletik presioa geneukan, auzoko uren kudeaketa Gipuzkoako Urak-en esku uzteko. Beraiek ere 'goitik' presionatuta omen zeuden. Arrazoia osasuna bermatzeko neurri falta zen. Nor arduratuko zen uraren kalitate faltagatik inor erituz gero?

Bazen ardura, beraz; Udalarendako, eta guretako. Olabarrietako urak auzoko batzorde independente batek kudeatzen ditu. Beraiekin egon ginen auzo-batzordekook, eta lasai egoteko esan ziguten. Ezagutzen zituztela botere-joko horiek eta informatuko zirela ur kontuetan autoritatea den Aguas del Cantábricon, joko-arauak ezagutzeko.

Horrela jakin zituzten hartu beharreko neurriak: tratatu, analizatu, eta erregistroa eraman. Antolatu, taldea indartu, eta egin zuten. Inoren menpekotasunean erori gabe, arriskuen ardura beren gain hartuz. Bejondeizuela!

Pasarte hori gogora zerk ekarri didan? EH Bilduk kudeatzen duen Udalak larunbateroko azoka irekitzeak, Eusko Jaurlaritzaren debekuaz gaindi. Udalekoek bere egin dute arriskuen kudeaketa eta azoka segurua izateko era topatu dute, baserritarrei eta bestelako saltzaileei plaza, kantxa emanaz. Bejondeizuela!

Oraingoan, aurrekoan bezalaxe, ardura eta zentzua gailendu dira. Hain da arduratsu eta zentzuzkoa erabakia, ezen herriko EAJ-k ere bat egin duen. Eta gutxira, hara non Eusko Jaurlaritzak berak ere zia boga egin duen debekua bertan behera utziz.

Auzoan lehen, Udalean orain. Egiteko era bera. Kultura bera: arazoak, dauden tokian arduraz konpontzekoa. Burujabea. Harro egotekoa.

Ezin dezakegu horrelakorik esan Euskal Herri mailan bizi izandakoez: BBVAren 'euskarazko' web orria, ETB1en gainbehera, erdarazko komunikatu ofizial elebakarrak, ordezkariak euskara traketsean komunikatu ezinik... Euskarari 155 bat aplikatu diote.

Gertakariok ez dira krisiak eragindakoak izan. Bistaratutakoak baino. Bejondeizula, Covid, gauzak diren bezala erakustearren, makillajerik gabe. Erakundeek eta ETBk ez dute euskaraz sortzen. Gure autogobernua, Madrilek nahi duenaren arabera da, eta ez gobernutik saltzen diguten adinakoa. Makillatua eta makilatua dago euskaldunon aldeko konpromezua. Ikusi dugunak izutu egin gaitu: osasun eskaseko kultura, menperakuntza

birusak larriki eritua, heriotzera bidean.

Eta ez daukagu erakunderik honetaz arduratuko denik. Euskal Herria zatikatuta, eta zatietako erakundeak, menpekotuta, 'goiko' arrotzekin. Mende gutxi batzuk direla ebatsi ziguten gure Estatua, Nafarra. Konkistaren epeen arabera zatiketa sufritzen dugu orain: 1200, 1512 eta 1620. Ez genuen baina, likidazio agirik sinatu. Zentzuz berreskuratuko dugu burujabetza nazionala, suizidio kulturala sahiestuko badugu. Zatiketak de facto gaintuz, 'elkartuta, aterako gara' esango dugu geuk ere. Gaitz hilkorra analizatu, tratatu eta erregistroa eramanez. Amildegian behera garamatza kurba motelduko dugu, lautada aurkitu eta apurka goraka ekiteko, normalitate zaharberritura.

Herriko bi adibideek erakutsi bezalaxe, arduraz baino ez dugu euskaldunok munduko aniztasunaren mapa koloreztatzen jarraituko. Europaren baitan argi propioz ñir-ñir egingo dugun ondare zahar-berritu izan gaitzen, osasuntsu eta bizi.

OSASUNAREN AITZAKIA

Jon Aiausti eta Inma Martin, ERNAren izenean

Gure osasunaren izenean, askatasun eta eskubide gehienak baztertuak eta zapalduak izaten ari dira duela aste batzutatik eta oraindik ez ditugu berreskuratu. Zapalkuntzarako ohiko bideak erabili dira: Ertzaintza eta Espainiaren gainontzeko talde armatuak. Talde hauen benetako aurpegia ezagutzeko aukera izan dugu, aurretik ezagutzen ez bagenuen. Justifikazio gabeko biolentzia, arrazakeria, harropuzkeria eta beraien erabilera politikoa. Azken honetan maisuki aritu dira oraingo honetan ere EAJ eta PSOE.

Konfinamenduan zehar herritik sorturiko hainbat proiektu suntsitu dituzte beraiekin bat ez zetozelako. Itzurbaltzetako gaztetxea Getxon eta Talka espazio feminista Gasteizen izan dira kasu esanguratsuenak. Kaleko protestak debekaturik dauden egun hauek baliatu dituzte lege kanpoko jardun poliziala burutzeko. Gainera Talkan bi pertsona atxilotu zituzten, hemendik besarkada bana bidali nahi diegu.

EAJk gure herriarentzat duen proiektu bakarra Espainiarekiko sumisioa eta herriaren aurkako zapalkuntza dira. Alderdi honek ez du bere eskutatik ihes egiten duen gune autogestionaturik onartzen eta ez dauka arazorik honetarako legea urratu behar badu ere. EAJren normaltasunak zapaldu egiten gaitu. Gure eskubideen defentsan jarraitu behar dugu, normaltasun honek irentsi ez gaitzan.



Europako tximeleta handiena Oñatin

 Paboi Handi (saturnia pyri) izeneko tximeleta espeziea aurkitu du Oñatin gure irakurle batek. Arantzazuko Santutegiaren alboan ikusi zuten. Europako tximeleta eta intsektu handiena omen da. 12-16 zm tar-teko tamainakoa. 2€-ko txanponaren alboan jarrita, garbi gelditzen da espezie honen tamaina harrigarria.



JOSE ANGEL URQUIA

CIORAN-I BURUZ

Agustin Errasti Goenaga

Bittor lagunak, Cioranek bizi izan zituen gogoetak ekarri zizkigun aurreko alean. Ezin Bukatu, etsipen punttu batez utzi nautela. Berehalakoan harian sartuta, "Bizitzak inolako zentzurik ez badu", ondorio zuzena litzateke "bizitzeko arrazoi bakarra zentzurik gabe bizitzea dela" esatea? Txanpon bat jausi ez den lekuan saiatzen da inor txanpon bila? Zer nolako mundua eraiki printzipio horrekin?

Malenkonian murgilduta utziko ez gaituen beste proposamen bat eskaintzen digu Dantek bere Komedia Jainkotiarrean, (Divina Comedia): "Dio è l'amor che muove il sole e l'altre stelle", hau da, mundua maitasunak sortu du, unibertsoa maitasun historia da, giza esistentzia maitasun historia da.

Badaude betiko iraunkortasuna merezi duten gauzak: ama edo aita baten maitasunak, bikote baten laztanak, seme-alaben edo lagunen arteko maitasunak... edo Beethovenen 9. sinfoniak, zertxobait esatearren. Zorionez, bizi-poza ere badago bazterretan.

2015ean neo-Punk, Nick Cavek, seme nerabea galdu zuen, bere burua itsaslabarrera bota ondoren, LSD kontsumitu eta gero. "Ghortein" diskoan, bere semeari eskainitakoan, abestu eta otoitz egiten du, etorkizunean harekin topo egiten duelarik: "Etorriko da garaia, etorriko da guretzako garaia...". Beste gai batean: "Eta Jesus izeneko gizon batek promes egin zuen gaua argitzeko hitz bat utziko zigula". Eta hurrengo batean Nick semearekin agertzen zaigu "Jaunaren larreetan..." Jaunaren bazkaleku horretara bere semea Arthur heltzen da tren zoragarri batean. "Berriro etorriko da, bai..." (F. Vidal – V.N.).

Azken lerrook, Pagolarenak, nireak egin nahi ditut:

"Bakoitzak erabaki behar du nola bizi eta hil nahi duen. Nik uste dut eta espero, errealitatearen azken misterioa, batzuk Jainkoa deitzen duguna, beste batzuk "Energía", edo "Traszendentea", beste batzuk "Ezereza", Ontasun Misterioa dela, denok aurkituko dugun gure esistentziaren Betetasuna. ■

Euskal Koben Ibilbidea saritua

Turinea, turismo arloko web atariak antolatzen duen **Urteko Ibilaldi**



Onena lehiaketa irabazi du Arrikrutz-Oñatiko kobak eta kantaurialdeko beste zazpi haitzulok (Pozalagua, Ekainberri, Urdazubi, Mendukilo, Zugarramurdi, Sara eta Isturitz) osatzen duten Euskal Koben Ibilbidek (<http://www.lurpea.eus>).

Bederatzi finalista zeuden hautagaien artean, baina bisitarien 4.122 botoek eman diote garai-pena euskal koben ibilbideari. Atzetik, 'GR 280(Bizkaia)', 'El camino del Cid' eta 'Ruta del trabajo del hierro en Gipuzkoa' ibilaldiak izan dira bozkatuenak.


Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✚ Heriotza	✚ Istripuak	✚ Etxebizitza
✚ Autoak	✚ Ontziak	✚ Aurrezkia
✚ Bizitza	✚ Osasuna	✚ Laborantza

Helbide: Moxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com


Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz
 "Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".



Gure ekintzen berri emango duen atala...

Begirada sistemikoa esku-hartzean, sarearen garrantzia

Jo dezagun ume bat negarrez ikusten ari garela sarri, jo dezagun haur batek normalean baino atentzio eskaera gehiago egiten dizkigula, eman dezagun gazte bat alai ikusten ari garela azken egunetan; hezitzaileok eta edozein gizakik jokabide hauei esan-nahi bat eman nahi izaten diegu, bakoitzak bere ikuspegitik, usteetatik, jakintzatik edo bizi esperientzietatik.

Gaztelekuko hezitzaileon kasuan, besteak beste, ikuspegi sistemikora jotzen dugu jokabide hauen arrazoien bila. Ikuspegi sistemikotik norbanako guztiak sistema ezberdinen parte garela, eta hauen logikatik eta bertan daukagun lekutik erantzuten dugula esaten da. Haurrengan familia da eragin handiena daukan sistema edo sarea, nerabeengan berriz lagunen sistema, eta beraz jokabidea sare ikuspegi honek gertaera asko ulertzen laguntzen digu.

Sistema edo sare baten parte izateak, sistemako beste kide bati gertatzen zaionak beste guztiari ere eragin ahal izango diela esan nahi du, eta beraz gurasoek elkarren artean izan ditzaketen eztabaida beroek haurraren oreka azaldu dezakete, nolabait. Horregatik, esku-hartze terapeutiko bati begira, haurraren urduritasun edo ezinegon hau famili sistema (eta beste sistema batzuk ere) behatu eta aztertu ondoren esku-hartzen bada hobe. Batzuetan, gurasoak, arrazoi ezberdinengatik, ezin dute esku-hartzean parte hartu. Horrelakoetan esku-hartzea, nahiz eta ikuspegi sistemikoa izan, haurrarekin bakarrik burutu behar izaten dugu.

Edozein gertaeraren aurrean logika sistemikoa egon daitekeela ulertzeak "pisua kendu" eta banakakoaren mugaz gain begiratzea suposatzen diezaguke. Logika sistemikoa sinpleagoa eta errazagoa den arren, sarritan banakoen balorazioak egiten ditugunean: ona eta txarra, gaixoa eta osasuntsua, bezalako terminoak erabiltzen ditugu. Eta horrek mugatzaileak diren sailkapenak erabiltzea ahalbidetu dezake; banakoaren jokabidearen atzean talde eta harremanen ondorio den gertaera bat egongo da, banakoaren maila, zalantzan jartzen da.

Sufritzen ari denari laguntzeko adibidez, bere burua gupidarik gabe estutzen ari den gaztearen egoeran jarrita, ikuspegi sistemikoa hau barneratzeak asko lagundu diezaioke bere zulo beltzetik ateratzeko. Ulertu dezakeelako dena ez dagoela bere esku, eta horrek beldurra eta etsipena arindu egingo dio. Beraz, sistema ezberdinetan daukan lekua ulertzean eta sistema horretan duen kokalekua aldatzerakoan, bere buruari mesede egingo dio.

Sistemen logika honetatik ere bullyngarekiko esku-hartzea birdefinitu egin da azken urteotan. Erasotzaile eta erasotua- ren eskema sinpletik haratago, sarritan baliogarria ez dena, lagun sistemak eta ikasgelak osatzen duen sistema guztia hartzen da kontutan, denak baitira partaide, denek baitaukate bakoitzaren roletik eragina, baita ere erasoaren aurrean ixilik geratzen direnak.

Gaztelekutik, lagun arteko sistema da behatzeko aukera gehien izaten duguna. Gure aldetik talde hauek behatu, hauekin erlazioatu, eta honelako galderak sortzen zaizkigu:

- Elkarren artean zenbateko errespetua diote bata besteari?
- Elkarren artean zenbateko askatasuna daukate nahi bazelakoak izateko?

Galdera "sinple" hauen erantzuna ezagutzeko testuinguruak sortzen ari gara etengabe. Gure gazteen arteko erlazio harremanak hezitzaileak, errespetuzkoak, aberatsak, dinamikoak, indartzaileak, ... izan daitezke. Guk horrelako harremanak dituzten taldeak sortzen lagundu nahi dugu, eta horretarako, esan bezala, taldeekiko ikuspegia, hau da ikuspegi sistemikoa izatea ezinbestekoa da.

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behe • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

Gezalaga Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

HEMEROTEKA

EUSKARAREN URGENTZIA

Berria egunkarian argitaratua, maiatzaren 15ean.
Egilea, Garikoitz Goikoetxea

Garai zailetan geratzen dira agirian lehentasunak eta irizpide nagusiak: lan moldeak zein diren, arlo eta eskubide batzuei zenbateko garrantzia ematen zaien, gai batzuek zenbateko zeharkakotasun duten benetan. Osasun larrialdiak agerian jarri du euskararen, hizkuntza politikaren eta hizkuntza eskubideen egoera larria. Aspaldi ez bezelako neurrian ageri da zokoratua, jardun publikotik baztertuta, agendatik eroria. Osasun larrialdiaren azpian, euskara indarberritzearen urgentziak lekua nabarmen galdu du erakundearen eremuan, eta arrisku handia du eremu sozialaren agendatik at geratzeko.

Erakundearen jokabide okerra argia izan da asteotan. Agerraldi publikoetan, adibidez, hutsaren hurrengo lekua du euskarak. Iragarpen ofizialek ikusmin handia sortzen dute egunotan, herritarrek ezinbestekoak baituzte, nola jokatu behar duten jakiteko.

Euskara baztertuta utzi dutela, argigarriak dira egunotako lau adibide. Bat: Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak jarraibide batzuk prestatu ditu, tabernak irikitzeke zer prebentzio neurri hartu, eta udalei bidali dizkie Eudel udal elkartearen bidez. Erdara hutsez: <<Presazko izaera duelako, dokumentazio hori bakarrik gaztelaniaz aurreratzen da>>. Lau egunera bidali diete euskaraz, tabernak iriki eta gero. Bi: sail berak kanpaina bat prestatu du <<bertako turismoa>> sustatzeko. Erdaraz dago bideo guztien ahotza, eta bakarrik ditu euskarazko azpidatziak. Kazetari batek argibideak eskatu ondoren, bideo horri kendu egin diote erderazko ahotza, baina ez diete euskarazkorik jarri. Hiru: igande arratsean, lehen fasea hastear dela, Nafarroako Gobernuak argibide dokumentu bat plazaratu du, herritarrei datu praktikoak emateko. Erdara hutsez. Herritar batek kexua egin du, eta gobernuak hala erantzun dio: erdaraz egin dutela agiria, baina telefonoz deituz gero kasu egingo diotela euskaraz. Lau: lehen fasea hasi orduko, 00:13an, irizpideen dokumentua kaleratu du Ertzaintzak. Agiri inportantea da: zer dagoen baimendua eta zer ez –iragarri dute, adibidez, etxean ezin dela jendea bildu-. Hemezortzi ordu geroago iritsi da euskarazko kopia: 17:59.

Euskararen erabilera areagotzeko planak onartu dituzte

erakundeek urteotan. Jaurlaritzak, adibidez, iaz onartu zuen azken normalizazio plana, eta aurrerapauso nabarmenak jarri zituen mahai gainean: hizkuntza eskubideak <<guztiz>> bermatzea, euskara lan hizkuntza izatea, gaitasuna egiaztatua daukatenean euskaraz lan egitea, hizkuntza irizpideak finkatzea eta betearaztea.... Nafarroako Gobernuak munta txikiagoko neurriak zituen Euskararen Plan Estrategikoan: sail bakoitzak <<erantzukizuna>> hartzea, eta herriotarrek hizkuntza hautatzeko aukera <<modu produktiboan>> ahalbidetzea. Asmo horiek guztiak paper erretan geratu dira egunotako jardunarekin.

Erakunde Publikoetatik haragokoa da joera, gainera. Eragile sozial ugari ere utzi dute euskara alde batera. Egunotan ohar bat baino gehiago bidali dute gaztelania hutsean, <<urgentziagaitik>>.

Ez da maila berean jartzekoa gizarte talde baten eta erakunde publikoen erantzukizuna –instituzioentzat obligazioa da hizkuntza ofizialean zerbitzu ematea –, baina ardura sozialaren ikuspegia aintzat hartzekoa da guztientzat.

Hori baitu arrisku nagusietako bat orain euskararen indarberritzeak: urteotako aurrerabidea etetea, ekimen soziala ahultzea, inbertsio handia egindako arloetan emaitzak ez jasotzea.

Erronkak, urgentziatzko erronkak, mahi gainean daude. Adibidez, erronka handia da eskolatik kanpo dauden milaka ikasleena: gehienek erdara dute etxeko hizkuntza, eta eskola dute euskarazko leku bakarra. Gehienak ez dira bueltatuko iraila arte behintzat, udalekuak airean daude, eta agerikoa da arriskua: lehen ere sueto aritzen ez diren mihiak gehiago atzentzea. Euskaltegietan ere bada lana: aurrez aurreko eskolak etenda, azterketak airean, nola eutsi ikasleei. Nahitaezkoa da bide berriak bilatzea.

Euskara agenda sozialean jartzeko bidea izan da Euskaraldia. Helburu hori zuen Etxealditik Euskaraldia egitasmoak, nahiz eta oihartzun mugatua izan duen.

Herritarrek aktibatzea du helburu Euskaraldiak, eta aurreko entitateek ere badute ariketa. Sustatzaile diren aldetik, erakundeek egokiera aparta dute eredu garri izateko, herritarrei begira hasita: agirietan hizkuntza eskubideak bermatuz eta agerraldi publikoetan egun on baino gehiago euskaraz eginda. Gutxienezkoa da egoera honetan ere. Eta urgentea. ■



Futboleko eta areto futboleko taldeak mailaz igoko dira

Gipuzkoako futbol federazio nagusiak bukatutzat eman du 2019-2020 denboraldia eta, horrenbestez, erabaki du txapelketa eten zenean (martxoak 8) Gorengo mailako bi multzoetako sailkapeneko buru ziren Aloña Mendi eta Allerru taldeak Ohorezko Erregional Mailara igoko direla. Gogoratu, Aloña Mendi bigarren multzoko sailkapen buruan zegoela, bigarrenarekiko 7 punturen aldearekin.

Bestalde, areto futboleko Ingou-Aloña Mendi taldea ere Gipuzkoako bigarren mailara igoko da, txapelketa eten zen egunean (martxoak 7) hirugarren mailako sailkapeneko buruan zegoelako.

KANPOAN DABILTZANAK

Azkoitiko Anaitasuna futbol taldean ari den Axier Ugarte ere zoriondu beharrean gaude, datorren urtean 3. mailan jokatzeko txartela lortu baitu.

Zorionak, era berean, Leintz-Arizmendi taldean ari diren Miriam Agirre eta June Ugarteri, Ohorezko Erregional mailatik Euskal Ligarako jauzia emango baitute. Zorionak, azkenik, Eibar futbol taldean ari den Eider Egañari, hauek ere igoera lortu baitute eta Espainiako maila gorenean ariko baitira datorren urtean.



Marisol Ramos, munduko rankingeko buru

Aspalditxoan ez dugu Marisol Ramosen berririk izan, baina bistan da Aloña Mendiko korrikalaria ez dela geldi egon.



Iazko udatik hona lortutako emaitzak horren lekuko. Hala, Saguntan jokatu ziren Espainiako txapelketan urrezko dominak lortu zituen **800**, **1.500** eta **5.000** metroko distantzietan, **W-60** (60 urtetik gorakoak) mailan.

Italian jokaturako Europako txapelketetan garaipenak lortu zituen pistako **5.000m** (20.33), **10.000m** (42.57) eta errepideko **10.000m**-tan (41.32). Donostako 15km-ko proban bigarrena izan zen senior absolutuan.

Horiez gain, Marisolek Espainiako errekorrak lortu ditu pistako **5.000m** (20.04), errepideko **10.000m** (41.32) eta pista estaliko **800m**-koan (2.46), eta hori gutxi balitz, mundu mailako ranking-eko buruan dago pista estaliko **1.500** eta **3.000m**-ko distantzietan.

Torreazuko lasterketa eta Arantzazuko Igoera bertan behera

Ekainaren 28rako iragarrita zegoen Torreazuko lasterketa bertan behera uztea erabaki du Abixaran taldeak, bizi dugun osasun egoerak hala eraginda. Babesle eta laguntzaileei eskerrak eman eta Torreazuko lasterketa datorren urteko ekainaren 27an itzuliko dela adierazi dute.

Bestalde, Aloña Mendiko txirrindularitza sailak bertan behera uztea erabaki du ekainaren 28an Olakuan jokatzekoa zen Kadete mailako proba, eta uztailaren 4ko Arantzazuko Igoera. Irailaren 12rako (Junior maila) eta 19rako (Sub-23) programatuta dauden lasterketak jokatu ahal izateko itxaropena dutela adierazi dute txirrindularitza sailekoek.

munduko
bizikleta fabrikatzaile handiena den

GIANT markako
bizikleta elektrikoak
969 eurotik aurrera

Oñabike

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK

oñabike.com Otadui 25, Oñati
Tel.: 943 78 05 65

Gure beharra baduzu,
ondo-ondoan gaituzu.
Arrasaten.

Hain ondo zaindu nahi
zaitugunez, **Arratsaten** bertan
ere artatuko zaitu Zuatzu
klinikako espezialista-taldeak,
20 urtetik gorako esperientzia
duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbidea, 4 (bajo)
20500 Mondragón
943 792 018



www.clinicazuatzu.com



Gasteiz Big Band

Kalitatezko musika, festa giroan

Koronabirusagatik ez balitz, asteburu honetan (ekaineko lehenengoan, ohi bezala) *Gasteizko Big Band Jaialdia* ospatuko zen, Arabako hiriburuan erreferentziazkoa bihurtu den musika jaialdia, aurtien 17. edizioa beteko zukeena. Baina bertan behera geratu da tamalez. "Pena handia, bai. Urteko hitzordu nagusietako bat izaten da guretzat" esan digu Imanol Mugarzak, *Gasteiz Big Band* (GBB) taldeko tronboi jole oñatiarrak.

Izan ere, GBB bera arduratzen da (*Big Band Berri* eta Udalaren laguntzarekin) *Gasteizko Big Band Jaialdia* antolatzeaz, eta, nolabait esatearren, Euskal Herriko uda parteko jazz jaialdien denboraldiari hasiera ematen dion festibala izaten da. Andra Mari Zuriaren plaza jazz, blues edo swing doinuz betetzen da, milaka musika zaleren gozamenerako.

"Jaialdia antolatzeaz gain, urteko lehen kontzertu nagusia izaten da guretzat, eta ilusio handiz prestatu ohi dugu" azaldu digu Mugarzak; "baina aurtien ez da posible izango. COVIDak hankaz gora bota du jaialdia, eta uda parterako hitzartuta genituen beste kontzertu batzuk ere bai, besteak beste Gasteizko jaietan eman behar genuena".

Mugarzak ia hiru urte da-



IMANOL MUGARZA INTXAUSTI
tronboi jole oñatiarrak hiru urte daramatza
Gasteiz Big Band taldean

ramatza *Gasteiz Big Band* taldean. Jimmy Bidaurretak maisuki zuzentzen duen taldeko lau tronboi joleetako bat da. "Kasualitatez hasi nintzen. Taldeko tronboi-larietako batek istripu larria izan zuen, eta haren lekua betetzea proposatu zidaten (tronboi joleetako bat nire maisua izandakoa da), eta orduz geroztik nabil han, oso gustura".

24 URTE ETA 5 DISKO

Gasteiz Big Band taldea 1996an sortu zen, Luis Aramburu musika eskolaren baitan, baina, poliki poliki, bere izaera eta ibilbide propioa hartu zuen, eta talde gisa hazten joan da etengabe, batez ere azken hamar urteetan, Bidaurretaren batutapean. "Era askotako musika jotzen dugu. Big Band taldeen *jazz* musika tradizionalaz gain, *soul*, *swing*, *pop* edo musika folklorikoa ere jorratzen dugu, gure bandaren ezaugarrietara moldatuta" azaldu digu Mugarzak. "Soinu banda ezagunen egokitzapenak



ere egiten ditugu. Errepertorio oso bariatua daukagu. Jendeak ondo pasatzea da gure helburua, kalitatezko musika eginez, baina ukitu informal bat emanez, uste dugulako bateragarriak direla kalitatea eta dibertimendua".

Bere ibilbidean zehar bost

Goian, Gasteiz Big Band-ek Sole Giménezekin emandako kontzertuko irudia eta taldeak plazaratutako diskoetako batzuen azalak

disko plazaratu ditu GBBk, eta Euskal Herrian ez ezik, Madrilgo Auditorio Nacionalean, Suitzan edo Frantzia (3.000 ikusleren aurrean) jotzeko aukera izan dute. "2017an kontzertu berezia eman genuen Gasteizko jaietan, Sole Giménez musikari espainiarrekin. Bere abestiak gure bandaren ezaugarrietara moldatu genituen eta, egia esan, luxua izan zen niretako. San Prudentzio jaietako erretreta zuzenean jotzeko aukera ere izan dut, eta hori ere oso une berezia izaten da".

Imanol Mugarzak Oñatiko José de Azpiazu musika eskolan ikasi zuen tronboia jotzen. Herriko musika bandan aritu zen 18 urtera arte eta Zumarragako bandan ere bai, denboratxo batez. Txaranga desberdinetan ere parte hartu izan du, eta Suedian bizi izan zen garaian *brass band* (metalez osatutako taldea) batean ere aritu zen, eta Oñatiko *Domeketarrok* taldearen sorreran ere parte hartu zuen. ■



BARRENETIK SENTITU, BIZI, MUSIKA GOZATU





MUSIKAREKIN HASI, HEZI ETA BIZI

- 2-3 urtetik aurrera hezkuntza musikala
- Kalitatezko Musika heziketa
- Musika taldean egiteko aukera
- Kontzertuak, emanaldiak...

Izen ematea:

Ekainaren 1etik 15era
17:00etatik 19:00etara
Astelehen, asteazken eta ostiraletan

Jose de Azpiazu Musika Eskola
 J. Moiua kalea 26, 20560 Oñati - 943 78 31 74
idazkaritza@jaspiazumusikaeskola.com
www.jaspiazumusikaeskola.com

Esku•ltu•ra

KULTURA ESKURA

Kultura jarduera poliki poliki berreskuratzen joateko asmoz, udal Kultura sailak 'Eskultura' ('kultura eskura' kontzeptutik sortutako hitz joko) egitaraua prestatu du ekaina eta uztaileko. Azken bi hilabeteetan udalaren agendan eta auzoetako jai egitarauetan programatuta zeuden eta bertan behera geratu behar izan ziren ekitaldietako batzuk berreskuratu nahi izan dituzte. Egoerak eskatzen dituen segurtasun baldintzak bermatzeko neurriak hartuko ditu udalak.

EGITARAUA

EKAINAK 5, OSTIRALA SANTA ANA, 22:00

Barry Manley-ren irlandar eus-kaldunaren bakarrikzeta saioa



EKAINAK 10, ASTEAZKENA KULTUR ETXETIKO ZINEAN, 17:30

Virginia Imaz (ipuina kontalaria) eta Inma Merinoren (sexologoa) eskutik 'Tuppersex eta ipuin erotikoko' lantegia. Emakumeentzat. Gaztelaniaz.



EKAINAK 12, OSTIRALA PLAZAKO PILOTALEKUA, 22:30

Aire libreko zinea: 'La mujer de la montaña'

EKAINAK 14, IGANDEA LAZARRAGA LORATEGIAN, 13:00

Oñatiko musika bandaren kontzertua

EKAINAK 18, OSTEGUNA ZINE ARETOAN, 19:00

Amets Arzallus eta Ibrahima Balde, *Miñan* liburuaren gaineko literatur solasaldia



EKAINAK 19, OSTIRALA PLAZAKO PILOTALEKUA, 22:30

Aire libreko zinea: 'Black is beltza'

EKAINAK 26, OSTIRALA LAZARRAGA LORATEGIAN, 22:00

Ganbara eta Hots abesbatzen eskutik: 'Uraren doinuak'

EKAINAK 27, LARUNBATA FORUEN PLAZAN, 12:30

Herrixa Kantuan saioa.

UZTAILAK 1, ASTEAZKENA OLAITTURRI, 19:00

Shakti Olaizola zirku konpainiaren eskutik 'Baldin bada' familientzako ikuskizuna.



UZTAILAK 5, IGANDEA LAZARRAGAN, 19:00

Gorka Minguezen *El Chef* bakarrikzeta. Gaztelera.



HURRENGO EKITALDIAK:

UZTAILAK 8 / Lazarraga lorategian, 19:00

Kontzertua: **Dama Beltzak**

UZTAILAK 17 / Lazarraga lorategian, 19:00

Kontzertua: **Ainhoa Larrañaga eta banda**

UZTAILAK 19 / Lazarraga lorategian

Musika banda 13:00 / Bretain saioa 19:00

UZTAILAK 22 / Plazako frontoian, 22:30

Zinea aire librean: **Black is Beltza**

UZTAILAK 26 / Lazarraga lorategian, 17:00

Magia ikuskizuna: **Eleder magoa**

UZTAILAK 30 / Gaztelekuan, 22:30

Kontzertua: **Bizarro eta Sharon Stoner**

SEGURTASUN NEURRIAK

Aforo mugatua

Ekitaldi guztietarako sarrera doan izango da, baina aforoa mugatua izango denez, aurrez sarrerak eskuratu beharko dira www.oñati.eus webgunean edo Txokolateixan.



AULKIETAN ESERITA

Aulkietan eseri beharko da pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia errespetatzeko. Ikuskizunak dirauen bitartean eserita egon beharko da.



ZAINTZAILEAK

Sarrera eta irteeretan aforoa kontrolatzeko eta jende pilaketak ekiditeko zaintzaileak egongo dira.



HIGIENA

Eskuetako higiena bermatzeko sarrera guztietan egongo den gel desinfektatzailea erabili beharko da



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu eta jai egunetan baserriko agia, egurrezko labea egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



Ekaineko Tertulixan saioak irekiak izango dira liburutegian

Udal liburutegiko irakurketa eta idazketa taldeek kurtsoko azken saioak egingo dituzte ekainean, eta irekiak izango dira, nahi duten herritar guztiek talde hauen dinamika bertatik bertara ezagutu ahal izateko.

Ekainaren 9an **Idazketa lantegia** egingo da kultur etxeko erakusketa aretoan (18:00). Ekainaren 11n **Psikologiako** irakurketa taldearen saioa izango da zine aretoan (18:00), *Temple Grandin* pelikulari buruzko gogoeta egiteko. Ekainaren 16an **euskarazko** irakurketa taldearen tanda izango da, zine aretoan (18:00), *Hezurren erretura* (Miren Agur Meabe) liburuaz hitz egiteko. **Gaztelerazko** Tertulixa taldearen saioa ekainaren 2an egin zen.

Roberto Bergalli zendu da

Oñatiko Lege Soziologia Institutuko zuzendaria izan zen bi urtez

1993-1995 artean Oñatiko Lege Soziologiaren Nazioarteko Erakundeko zuzendari zientifikoa izan zen Roberto Bergalli hil zen maiatzaren 4an, Bartzelonan, 84 urte zituela. Buenos Airesen (Argentina) 1936an sortua, bertako unibertsitatean egin zituen Zuzenbide ikasketak, eta Britainia Handian nahiz Italian osatu zuen formazioa 1966-1970 artean.

Argentinara itzulita, epaile kargua bete zuen bi diktadura aldien artean, eta, bestea beste, disidente politikoak espetxeratzeko erabili ohi zen 'El Camarón' izenez ezaguna zen salbuespeneko auzitegiaren itxiera sustatu zuen.

1976ko altxamendu militarren ostean bi urte eman zituen preso, eta nazioartetik egindako presioei esker, 1978an utzi zuten aske. Alemaniara itzuli zen, eta handik Bartzelonara 1982an. Bertako unibertsitateko Zuzenbide fakultateko irakasle katedraduna izan zen. Urte horietan hasi zen Lege-Sociologiaren arloan sakontzen eta, esan bezala, Oñatiko Nazioarteko Lege Soziologia Institutuko zuzendaria izan zen bi urtez. Baina, gerora ere, hartu-eman estua izan zuen



Oñatirekin, eta lan handia egin zuen lege-soziologia erakundearen izena Europa hegoaldeko herrialdeetan eta Latino Amerikan zabaltzen. Berarengandik ikasi genuen ezin dela zuzenbidea ulertu gizartean gertatzen diren transformazio ekonomiko, politiko eta kulturalak aintzat hartu gabe.

Sistema Penalaren eta Giza Eskubideen Behatokiaren sortzaileetako bat izan zen Bartzelonako unibertsitatean. Hainbat liburu eta ehunka artikulua argitaratu zituen aldizkari espezializatuetan, eta benetako maisua izan zen pentsamendu kritikoan eta lege-soziologian sakondu duten belaunaldi ezberdinetako ikasle eta ikerlari askorentzat. Goian bego.



TXIKI-TXOKO HAURRESKOLA

**Matrikula
zabalik**



**Zuk jolasa ikusten duzu.
Guk bere garapenean ere laguntzen dugu**



OLAKUA 19
Telf.: 943716405
oinati.oinati@haurreskolak.eus
Txiki Txoko



(*) Itten: arrastua, pistia

>> KONTU KONTARI

Lanik ez, behintzat!

Eta hor topaitten doguna, herrixa: herrixa edo herrixaren barruko zati bat. Nik berihela izena emun notsan zati bakoitzari. Ikusi neben gure herrixan bizi zala euskeraz berba egitten eben jente pobre, bozik bageko bat, eta bazala beste herri bat, ordurako seguru bizi zana. Ze, beste herrixak erderaz baekixen ondo. Oñatin neuri pasauta:

— 'Ai, nik erderaz baneki!'

— 'Zer egingo zeke, ba, erderaz bazeki?'

— 'Lanik ez, behintzat!'

Erderia ordurako beste kategorixa sozial bat zan. Mediku, eskribaun, botikarixo, maisu, abade eta 'lan'ik egitten ez euenena.



Hiru gizon bakarka. Bitoriano Gandiaga. Joxe Azurmediren epilgotik moldauta.

>> BILATU ADITZ HONEIN SINONIMUAK:

- | | |
|-------------------------|---|
| 1. Kunpliu | A. Askatu |
| 2. Jirau | B. Kaka egin; Obramentua egin |
| 3. Bentziu | C. Lehertu |
| 4. Jare egin | D. Konplitu |
| 5. Errebentau | E. Garaitu, gainditu |
| 6. Zakartu | F. Lortu |
| 7. Gizendu | G. Hil |
| 8. Librau; frakak eskau | H. Loditu |
| 9. Errendiu | I. Itsusitu |
| 10. Mundu honetatik fan | J. 1.Menperatu. 2.Nekatu. 3.Kabitu ezin |

Erantzunak: 1d, 2f, 3e, 4a, 5c, 6i, 7h, 8b, 9j, 10g

>> LOTU ADITZ LOKUZIÑO HONEIK EUREN ESANGURIAREKIN:

- | | |
|---|--|
| 1.-Lauhankan ibiltia edo katamarran ibiltia | a.- Makurtuta egotia ixixa lurra ipurdixarekin ikutu arte. |
| 2.-Buruzuti egittia | b.- Ume txikiñak oiñez ikasterakuan ebalten dauen karrotxo horren barruan ibiltia. |
| 3.-Mukukixo egotia | c.- Kurtziari patxo bat emutia. |
| 4.-Taka-takan ibiltia | d.- Ume txikiñen moduan ibiltia, bi esku eta bi belaunen gaiñian. |
| 5.-Mun egittia | e.- Korputzak bentzittia eta buruz behera fatia |

Erantzunak: 1d, 2e, 3a, 4b, 5c

ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIKAK



Maskarak, katamaluak, maskarillak eta katamalotxuak

Oñatin aspalditxotik ezaguketan dittugu Korpus egunian **apostolu bizidunak** eta herriko jaixetan **txorimalo eta jigantiak**; batzuk oso serixuak eta jolasgurakuak bestiak. Baiña, hain desbardiñak izan arren, badakoi zerbaitetan antza: euren jazkeran **maskarak** elementu oso inportantiak dira. Korpuztietako prozosiñuan urteten dauen hamabi apostoluak, Jesukristok eta San Migelek maskara estu batekin estari, tapaitten daue arpegixa, sarritan bero galanta aguantauaz. Txorimaluen disfraz nasaixagua da, buruhaundixak dira, baiña antxintxiketa asko egin bihar izaten dauenez, honeik be izardi majuak botaten dittue.

Eta **katamalu** zergatik? Gehixenok entzunda eukiko dozue askotan erdi-kantau izan dogun zerako zera: **Txorimalo! Katamalo! Tirikititi! Taukiri! Zeiñeri? Txorimaluari!** Kostau xakun berba horren esanguria harrapaitleia. Baiña halako batian konturatu giñan, R. M. Azkuek bere hiztegi famauan dakarrenaren bittartez, **katamalo** “*máscara* edota *persona disfrazada*” zala Oñatin eta Zegaman. Hori dala eta, berba barri bat asmaitleia pentsau dot: orain, zoritxarrez, hain modan jarri xakun **maskaralliaren** sinonimo lez, **katamalotxua** be ebali geike. Luzetxua da, bai, baiña politta, ezta?

Aurten, dakitzueenez, eztozu Korpus egunian prozosiñurik, dantzaririk eta santu bizidunik ikusiko. Noizian behin gertatu izan da, eguraldi txarraren eragiñez, baiña gutxittan. Eta txorimaluak? Auskalo... Atzeko kaleko jaixetarako eta San Migeletarako egoeria oneratu ahal da! Baiña nork jakin... Bixen bittartian, **geu ibilliko gara txorimalo egindda**, katamalotxo eta guzti!

Korpusetako argazkixa Irantzuko Elortzak ataratakua da eta txorimaluenak berriz, Iñigo Arregik. Eskerrik asko bixoiri.





LANA 60

years

Innovation from nature



HUMANITY
AT WORK

Human
Industry
Knowledge

www.lana.eu